

# ARGIA

# GOR

# DISKAK

Agur esango  
du 32 urteren  
ondoren

44-47. orrialdeak



**PFAS kimiko  
hilgarrien betirako  
kutsadura**

10 | OSASUNA



**“Pandemiarekin  
aurkitu ditugu  
gizaki ahulagoak”**

14 | VICENTE MADDOZ



**Errefuxiatu  
afganiarren egoera  
makurra Pakistanen**

24 | NAZIOARTEA

#2836 2023 / 09 / 03 11:40 €

# OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake  
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza  
ipuin-kontalari trebeenen  
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,  
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta  
batez ere, disfrutatzeko eta gozatzeko.

Prezioa **12 €**

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

## Iritziak

- 19 | IKER IRAOLA
- 20 | MALORES ETXEBERRIA
- 21 | SUKAR HORIA
- 21 | ARANTZA GUTIERREZ
- 22 | ENEKO OROZ ETA  
IRUÑE ASTIZ

## Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA:  
ANDREA MOMOITIO
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



JON HIDALGO

### 36 | "BERDINTASUNA EMAKUME ZAHARREN GORPUTZETAN ARI DA JOKATZEN"

Mari Luz Estebanek emakume zaharren gorputzetik eman zuen hitzaldia Iraultza Txikien Akanpadan. Jon Hidalgok jaso ditu haren hitzak, zeinak "atsotasunaren aldarri" egin zuen, zahartzaroko alde onak agerian jarriz eta emakume zaharrek jasaten duten diskriminazioa salatuz.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

### Kutsatzaile eternoen tranpa: lehen zena miragarri, orain da hilgarri

Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | VICENTE MADDOZ

### "Pandemiarekin aurkitu ditugu izaki ahulagoak, estres egoeren aurrean gainezka egiten dutenak"

Reyes Ilintxeta

24 | NAZIOARTEA | MIGRARI AFGANISTANDARRAK

### Hil gaitzazue!

Igone Mariezkurrena

32 | ARGAZKILARITZA | G. DUPLANTIER

### "Argazkiekin ez nabil errealitatea harrapatzeko bilaketa batean"

Jenofa Berhokoirigoin

36 | FEMINISMOA | MARI LUZ ESTEBAN

### "Berdintasuna emakume zaharren gorputzetan ari da jokatzeko"

Jon Hidalgo

44 | KULTURA | PATXI GOÑI

### "Lehen saltzen zenaren hamarrena saltzen da egun"

Gorka Peñagarikano

#### Jabetza

Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

#### Erredakzioa

Aitor Gurrutxaga, Amaia Lekunberri,  
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,  
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,  
Ilargi Manzanares, Jenofa Berhokoirigoin,  
Jon Torner, Lander Arbelaiz,  
Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta,  
Pello Zubiria, Urko Apaolaza,  
Xabier Letona, Zigor Oleaga

#### Diseinua

Maitane Gartziandia

#### Argazkilaria

Dani Blanco

#### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

#### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

#### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

#### Banaketa

Olatz Korta

#### Azoka

Mikel Olabide

#### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

#### Web garapena

Asier Iturralde

#### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

#### Lege gordailua

SS 837-2012

#### ISSN

0213-909X

#### Batzorde parekidea

72562 E

#### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA  
honako enprekin batera:

**aniza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**

**ADUR** software  
productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,  
moldatu, zabaldu eta argitaratu  
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta  
baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da  
testuontzat eta, argazkien eta  
ilustrazioen kasuan, ARGIAren  
sinadura daramatenentzat soilik.

**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

# Alfronbra azpira

Ozeano Barea hasi berri da iresten Fukushimako errektore suntsitu eta kutsatuak hozteko erabilitako ura, milioi bat tona metriko baino gehiago. Eta horrela izango da hurrengo 30 bat urteetan. Dena kontrolpean dago Japoniako Ingurumen Ministerioaren arabera: "Elementu erradioaktibo guztiak iragazi dira, tritioa izan ezik, uretatik kentzea zaila baita". Inguruko herrialdeek eta mundu osoko mugimendu ekologistek kontrakoa diote. Greenpeacek salatu du arriskuak ez direla erabat ebaluatu, eta "karbono 14, estrontzioa 90, iodo 129 eta tritioaren inpaktu biologikoak alde batera" utzi dituztela. Txinak debekatu egin du Japoniako itsas produktuen inportazio oro, eta azpimarratu du "ozeanoa gizateria osoaren jabetza komuna" dela, eta zabortegi pertsonal gisa erabiltzea "berekoia eta arduragabea" dela.

📍 Protesta asko izan dira Hego Korean. **KIM HONG-JI / REUTERS**

🔗 **AXIER LOPEZ**





해양투기 ❌

안하라

# “Beste” hegemonia zabalitzen

 AXIER LOPEZ

**B**RICS (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika) taldeak sei herrialde gehiago -41 eskatzailearen artean- batzeko eskaera historikoa egin du. Argentina, Saudi Arabia, Egipto, Arabiar Emirerri Batuak, Etiopia eta Iranek 2024tik aurrera erabaki beharko dute taldera elkartu ala ez. Boskotea hamaikakoa bilakatuko balitz, munduko biztanleriaren %46 eta BPGaren %37 bilduko luke BRICS berriak.

2009an sortutako BRICS taldeak bere eragin geopolitikoari zuzenean lotutako hedapen-etapari ekin dio orain. BRICS talde heterogeneoa eta asimetrikoa da. Ez da aliantza bat, terminoa elkar defendatzeko itun gisa, lankidetzat militarra tartean, ulertzen badugu. Ez da bloke politiko, kultural edo komertziala ere ez, haien kideen artean ez dago koherentzia ideologikorik edo linguistikorik, ezta merkataritza askerako akordio komunik ere. Egun munduaren botere banaketarekiko gaitzespen edo aldaketa nahi batek lotzen dituela esan genezake. Aipatzekoa da BRICSera batuko ei diren sei kide berrietako bat bera ere ez dela NATOko kidea. BRICS herrialdeek aspalditik egin dute presioa erakunde globalerako liderrak modu gardenean eta

**Munduko biztanleriaren %46 eta BPGaren %37 bilduko luke BRICS berriak, eta sei kide berrietako bat bera ere ez da NATOko kidea**

demokratikoan hautatuak izan daitezken. Ez dezagun ahaztu, adibidez, Munduko Bankuko presidentea beti izan dela estatubatuarra eta Nazioarteko Diru Funtseko zuzendaria, beti europarra.

Ekonomiari dagokionez, BRICSen proiektu kolektibo nagusia eta ia bakarra Garapen Banku Berria sortzea izan da, batez ere azpiegituren garapena finantzatzera bideratutakoa. Baina funtsezko puntu komuna dute: AEBetako moneta alde batera uzteko asmoa alde biko merkataritzan. Asmotik harago doa, hainbat hitzarmenen bidez jada abian jarritako bidea baita. Dolarra nazioarteko trukerako moneta gisa erabiltzea izan da, eta bada, hain zuzen, AEBen munduko hegemoniaren zutabeetako bat.

Jakina, BRICSeko kideen artean nolabaiteko elkartasuna dago, esaterako, Txinari edo Errusiaren aurka sustatutako nazioarteko zigorraren aurrean islatu dena; AEBetatik edo Europar Batasunetik sustatutako zigor horien aurrean kideen isiltasuna edo ez lerrotatzea eragin du elkartasun horrek.

Nazioarteko zigorrekin aurre egin beharragatik eta munduko hegemoniaren inguruko borrokan parte zuzena izategatik, seguruena, Errusia eta Txina dira BRICSen kide kopurua handitzeko arrazoi handienak dituztenak, eta agian ez gainerako kideak. Adibidez, Brasileko presidentea Lula da Silva saiatu zen giza eskubideak, eskubide sozialak eta emakumeen ahalduzko eraginaren gai nagusi gisa sartzeko, BRICSeko gailurrean. Begi-bistakoa da, lehen zaila izanik, orain are zailagoa da, kide diktatorial, autoritario eta energia fosilen ekoizle eta defendatzaile nagusi gehiago batuko direlako taldera.

## SEIKOTE BERRIA

Egipto, Iran eta Saudi Arabia botere politiko, militar, ekonomiko eta kulturalerako poloak dira, nazioarteko taula geopolitikoren funtsezko zonalde baten barruan. Saudi Arabiako eta Arabiar Emirerri Batuetako diktadurak AEBen ohiko aliatu militarrik dira Ekialde Hurbilean, baina zonaldean "munduko buruzagiaren" paper hori ahultzen ari zaie Txinako birtartekaritza-ahaleginen ondorioz, Iran eta Saudi Arabiako gobernuen artean berriki loturako akordioa kasu.

Baina, zergatik batu Argentina eta Etiopia, ia porrotean dauden herrialdeak, eta Etiopiaren kasuan gerra odoltsu batetik atera berritan?

Argentina, Brasilekin batera, gobernu aurrerakoien eskutik, integrazio-motor garrantzitsua izan da, AEBen -eta beste maila batean Europarenean- inperialismoaren kontrako Abya Yalan. Etiopia Afrikako Batasunaren egoitza da, Afrikako barne-arazoetan funtsezko eragin diplomatikoa duen erakundea. ●



GETTY IMAGES

## MATERIALISMO HISTERIKOA

# Ezta nahi gabe ere



UXUE APAOLAZA LARREA

**A**hozabalik ikusi dut espektakulua, eta amorrua, berriro, errepikatu zait. Berriro, gizon bat, nahi gabe bezala, bere azpiratutxoak gure lekura bueltatzen. Gehi beste amorrurru bat: nola iristen dira tipo hauek dauden lekura. Nola dago hainbeste idiota, gizon, agintaritzak postuetan. Elkar ulertzen dute. Baina oraingoan guretzat behar zuen ohartarazpen publikoak efektua zuen, eta kopetan eman dio, boomerang batek nola. Agian, azkenean, Rubialesek mesede bat egin digu.

Ahal zuelako egin du, hala egiten dute, baina, oraingoan, ez dugu guk esplikatu behar izan joanzenetaeginzuenetaesanzionetagero... Dena bistan egin dio/digu, egin diote/digute: telebisatuta ikusi dugu erasoak pasatzen uzten ez denean gertatzen denaren sekuentzia. Ezagutzen zenuten, baietz? Erasoak txantxa bihurtu, bizkarrekoak elkarri, neskak histerika samar dirudite, tira, barkamentxo bat, ez dira horrekin ere konformatu, beraz, berriro paketea esku artean jarri eta ehizak, eta nik nolak, eta bera zer, eta gizonei abisatu, kontua zuena ere bada, begira nola jartzen ari diren, edonor hondoratuko dute histerika hauek, ea ni bezalako tontoek nola izango dituzten bestela halako soldatak. Biktimaren kontra jo. Eta histerikek histeria kutsatzea lortu dutenez, inguru instituzional/mediatikoak ere zoro moduan: isildu, barre egin, serio jarri, berriro barre, oso serio jarri, imintzio itxuratiak egin, "hau eskandalua, hemen apustuak egiten dira!".

Jennifer Herмосok ezin izan du erabaki berak jasandako erasoarekin zer egin ere. Ezin izan du erabaki salatuko duen ez; ezin izan du erabaki ez bere esfortzuaren garaipenez gozatzea eta kitto, ez garaipen horien ondoan bera baino askoz idiotagoa den tirano baten izena betiko ez jartzea. Orain beste ikuskizun bat dator, edo isiltasun bat, biktimak ordaintzen duen prezioa erasotzailea zigortzen denean ere, edo zigortzen denean batez ere. Ez da egia, beraz; ez zegoen mesederik. Ez diguzue inoiz mesede txikienik ere egiten. Ezta nahi gabe ere. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA  
www.adurlarrea.com



## Elikadura

EAEEn 2.600 elikagai ezberdin daude eredu ekologikoan ziurtatuta; 2016tik hirukoiztu egin da ekologikoan ekoloziriko lurren azalera, baina oraindik nekazaritza lurren %5 da. Elikagai hauek plazaratzeko Udako Azoka Ekologikoak antolatuta dituzte EAEko 14 herritan.

## Klima

Gueñesek mende honetan erregistraturiko tenperaturarik altuena izan zuen abuztuaren 23an: 45,6 gradu. Oro har, Euskal Herrian inoiz erregistratutako tenperatura handienetakoak jaso ziren joan den astean.

## Matxismoa

Indarkeria matxistagatik hildako emakumeen seme-alabei (18 urtetik behera dituztenei) 5.760 euro emango dizkie Eusko Jaurlaritzak. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak onepesen-agindua sinatu du eta orain Gobernu Kontseiluak onartu behar du.

# Kalitatezko turismoaz



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU

noiz ez bezala”, “gehiegizkoa”, “neurrik gabekoa”... Horiek aurtengo erantzun batzuk Hondarrribian –ez dut uste salbuespena denik– turismoari buruz galdetuta tabernari, dendari edo ambulatortorioko erizainari. Turismoarekin ohituta egon arren, marka guztiak gainditzeaz nekaturik asko eta asko. Urteak daramatzate “kalitatezko turismoaren” aldeko diskurtso hutsalak entzuten, baina praktikan turismo masiboa bilatzen eta bultzatzen dela ikusten. Herritarrentzat geroz eta arrotzagoak eta bortitza geroz diren herri eta hiri ereduarekin noraino iritsiko garen larrituta daude.

Badago ordea, masifikaziotik aldentuta, beste turismo mota bat Euskal Herriaz gozatzeko: helikopteroz bisita gidatua, Michelin jatetxe izardunetan bapo bazkaltzea, arte ekimen eskusiboetan arratsalde pasak, eta gaua hotel paregabean igarotzea, langile gehienok hila batean ateratzen dugunarekin ordaintzerik ez dagoen logela batean. Masifikazioa saihesteko bidea izan liteke eliteko turismoaren alde egitea, gutxi batzuen esku egoteak berez mugatuko duelako turista kopurua, ez ordea turistek hemen utzitako dirua. Auzia turismo ereduaren dagoela esateak ezer gutxirako balio du, kalitatezko turismoa zer den zehazten ez bada, eta behin hori argituta, bestelako turismoa mugatzeko eta gure herrietatik aldentzeko benetako neurriak hartzen ez badira. Hortik joko al dugu?

Arazo handiegia da, turismoaren afera udako hitz aspertu eta bakarriketa amaigabe bat izaten jarrai dezan. Baina eztabaidatuko badugu, asmatu dezagun non jarri fokua. Turismoa bezalako jarduera batek gure egitura ekonomikoan izan behar duen pisua erabakitzea asko emankorragoa izango da, turistaren artean kalitatezkoa nor den epaitzea baino. ●

# Kiroleko indarkeria denei stop, “abusoirik” ez

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Berri oso on batekin ekingo diote ikasturteari aisialdian kirola egiten duten adin txikikoek, denen artean Rubiales jokamolde gehiago ez egotea lortu dezagun. Izan ere, irailaren 1etik aurrera Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako kirol erakundeek lege organiko hau bete beharko dute: “8/2021, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa”. Honen helburua “ingurune seguruak” eraikitzea da eta adin txikikoen aurkako “indarkeria-egoerak prebenitzea, garaiz detektatzea eta horietan esku hartzea”. Hori gauzatzeko, administrazioak protokoloak garatuko ditu, prestakuntza emango die adin txikikoekin esku hartzen duten kirol munduko pertsonen eta indarkeria-egoerak bideratzeko aholkularitza emango du. Eta kirol taldeek, besteak beste, zera egin beharko dute: protokolo hauek aplikatu, taldearen barruan “babes-ordezkaria” izendatu (erreferentziako pertsona izango dena kirolari, familia eta gainerakoentzat), beharrezko neurriak hartu diskriminazio-egoerak ez emateko... Dagoeneko kirol taldeen eskura daude “tresna kuxka” eta “oinarrizko protokoloa”. Kirolari eta guraso guztiak animatzen dituz hauek irakurtzera (adibidez, Gipuzkoako Aldundiko Kirol sailaren webgunean sartuta aurkituko dituzu, “LOPIVI, Adintxikiko pertsonen ongizatea” atalean klik eginda).

Tresna kuxkak galdera zehatzak planteatzen ditu kirolean egunerokoan ematen diren indarkeria egoerak identifikatzeko eta taldeko eragile guztiak egiten dituz partaide aktibo, askotan normalizatuta dauden indarkeria egoera hauei ezikusia egiteari uzteko eta tratatu onetako kultura bat lantzeko denen artean: kirolariak, senideak, entrenatzaileak, arbitroak, kirol medikuak eta zuzendariak.

Indarkeria mota anitz hartu dituzte kontuan Jaurlaritzaren eta Aldundiaren teknikariek ondutako lanketa honetan, jakinda kirolean gehien ematen den indarkeria psikologikoa dela: kirola egiten dutenen %70ek pairatu dute. Ondoren datoz indarkeria fisikoa (%43k), kontakturik gabeko sexu-indarkeria (%36), arduragabekeria (%34) eta kontaktuarekin egindako sexu-indarkeria (%20).

Ekarpen modura, ikuspegi bat gehitu nahiko nuke. Lan honen oinarrian dagoen premisa hauxe da: “Hautzaroan eta nerabezaroan kirola egitea gorputz-hezkuntzako oinarrizko funtzioa da osasunerako eta aisialdirako (nahiz eta, batzuetan, beste jarduera batzuetarako bilakaera izan dezakeen kirolak, lehiara edo profesionalizaziora bideratuta, esaterako)”. Uste dut ezinbesteko dela kirol taldeetako eragile guztien artean (gurasoetatik hasita) premisa horretan aipatzen den kirolaren ikuspegia lantzea, gehien baloratu daitezkeen ahalik jende gehienek kirola egitea bera, bizitzako ahalik urte gehienetan, plazera eta osasuna helburu hartuta. Tamalez, uste dut kirol taldeetan (gurasoetatik hasita) nagusi den ikuspegia premisa horren parentesian dagoena dela, alegia, lehiak irabaztea eta ia inor iritsiko ez den profesionali begirako amets zozotan katramilatzea.

Kirola ikusteko modu honek egunerokoan beste diskriminazio bat gehitzen die tresna kuxka honek bikain izendatzen dituen horiei, hau da, adina, arraza, desgaitasuna, sexu-orientazioa, genero identitatea edo genero-adierazpena: “kapazitatez” (nolabait izendatzearen), lehia galdu duten edo kirola egiteko gaitasun eta abilezia gutxiago dutenekiko indarkeria. Tresna kuxkak egiten dituen galderetan agertzen dira “kapazitatezkoaren” indarkeria egoera zehatzak, baina uste dut diskriminazio horri izenen bat jartzea beharrezkoa dela, egunerokoan gehien ematen den indarkeria izan daitekeelako. Tresna kuxkak planteatzen duen indarkeria estrukturalen ere, nabarmena da: kirol askotan zergatik entrenatzen dute egun gehiagotan A taldekoek? Indarkeria bortitza da, kirola egiteko eskubidea bera murrizten baitie A-koak ez direnei. Zein da administrazioak eta profesional izatera iritsiko ez diren herritarren %99,9ak bultzatzen duen irizpidea entrenamenduak antolatzerakoan? Ez al da garrantzitsua herritar ahalik gehienek kirola egitea, garapen integrala, osasuna, gozamina? ●



## TEKNOLOGIA

# Mugikorra eskuan...



DIANA FRANCO

... eta ibili munduan. Oporrak niretzako pantaila gabeko tartea izan ohi dira, baita esperientzia berriak gozatzeko tartea ere. Esperientzia berrien bila, atzerrira bidaiari joan naiz aurtan eta nire pantaila gabeko oporren ideia alde batera utzi behar izan dut. Arrazoia, digitalizazioak dakarren erosotasuna eta atzerrira bidaiari konplexu bat, non hornitzaile askorekin harremanetan jarri behar nuen. Motxila txiki batekin bidaiatuz, mugikorra izan da nire tresna bakarra, eta denetarako erabili dut: itzulpenak egiteko, atzerriko diruaren balioa jakiteko, gastuak kontrolatzeko, autoa eta logela alokatzeko, hegaldiak hartzeko, sarrerak erosteko... Hornitzaile eta bezero arteko harreman guztiak digitalizatuta egon daitezkeela ulertu dut munduko leku baztertuen ere; turismoan oinarrituriko enpresa txikienak ere izan dezake bere negozio ereduaren zati handia digitalizazioari esker garatuta.

Hori dena oso ondo dago, eta transakzio ekonomikoei begira bizitza errazten digu, baina ohartzen naiz joan naizen zenbait lekutan harreman gutxi izan dudala hango pertsonekin, eta uste dut leku baten izaera eta kultura hautemateko bertakoa kontsumitzea ez dela nahikoa, bertan bizi direnekin harremanetan jartzea dela bide onena. Turismoaren izaera da pertsonen kontsumo ahalmena leku batetik bestera mugitzea, esperientziaren ideiarri lotuta. Zoritzarrez esperientzia hori modu masiboan bilatzen dugu gizakiok, eta digitalizazioak aukera hori baliatzen du modu erosoago eta eraginkorragoan. Horrela, oporraldia, esperientziak izatea baino, kontsumoaldi bilakatzen da askotan. Hemen ere oreka bilatu behar dugu, batzuetan bidaiari izango gara eta bestetan turista, sarri jokatzan dugun rolaz kontziente izan gabe. ●

*“Bilboko konpartsekin ez dut segurtasunaren inguruan hitz egingo”*

## JUAN MARI ABURTO

Bilboko alkatearen hitzak dira, konpartsek biolentzia poliziala eta erasoak salatu ostean, tartean manteroen aurkako erasoak eta propaganda politikoa kentzea.

**RADIO EUSKADI (2023-08-25)**



**“SALBUESPENEZKO LEGERIA MODU IRMOAN APLIKATZEN JARRAITZEN DUTE, ZIGORRAK OSOTASUNEAN BETETZEA BAINO EZ DUTE BILATZEN”**

## SARE HERRITARRA

Auzitegi Nazionalaren jarrera “oztopatzailea” salatu du plataformak.

**2023-08-18**

*“Legalki, ‘fetu hilak’ edo ‘abortu-hondarrak’ izateari utzi diote gure umeei, aitortza jaso dute, eta inportantea da dolu prozesurako”*

## EIDER OTXOA

Esku Hutsik elkarteko kidea, Espainiako lege berriaz. Sei hilabeteko gestazioaren ostean hil diren umeei erregistro zibilean inskribatu ahal izango dira hemendik aurrera.

**ARGIA.EUS (2023-08-22)**



# KUTSATZAILE ETERNOEN TRANPA: LEHEN ZENA MIRAGARRI, ORAIN DA HILGARRI

Eternoak deitzen diete, betierekoak. Ez dute su hartzen, ez dira hausten eta betirako irauten dute. PFAS izeneko konposatuak duela ia mende bat sintetizatzen hasi zirenetik, gauza askotarako erabili izan dira, berdin zartaginean arrautza ez itsasteko nola mendiko txamarraren Gore-Tex ehuna egiteko. Baina badute tranpa bat: degradatzen ez direnez, metatzen joaten dira. Iturriko uretik, elikadura katetik, arnasten dugun hautsetik iristen zaizkigu... eta hilgarriak dira.

## URKO APAOLAZA AVILA

**D**upont enpresaren hodi batek apar kolore ilunez zikindu zizkion bere terrenoak AEBetako Earl Tennant baserritarrari, Ohio ibaitik gertu dagoen lakuaren ondoan, Parkesburgen. 1990eko hamarkada erdialdea zen etaazienda erdira murriztu zitzaion denbora gutxian, behiak gaixotuta hiltzen ari zirelako. Susmoa zuen ura kutsaturik zegoela. Frogak bere kabuz biltzen hasi zen, VHS zinta batean grabatu zituen behiak hiltzorian... Baina Mendebaldeko Virginia txiro hartan, nork egin behar zion aurre multinazional erraldoiari?

Han eta hemen galdezka hasita, esan zioten Cincinnati bazela abokatu bat ingurumen gaietan aditua, baina enpresak defenditzen zituena. Hegazkina hartu eta bi orduren buruan bere aurrean plantatu zen: "Haiek defendatzen badituzu, orain defenda nazazu ni ere". Eta halaxe ezagutu zuen Robert Billot. Abokatu eta baserritar, industria kimikoaren habeak dardarazi dituen borroka abiatu zuten elkarrekin, PFAS edo kon-

posatu per- eta polifluoratuak dakartzaten kalteak auzitara eramanda.

Billotek, epailearen aginduz, lortu zuen enpresak dokumentazioa helaraztea Tennanten terrenoetako isurien inguruan. Milaka karpetatant lurperatu nahi izan zuen Dupontek abokatu, baina honek sator baten gisan arakatu zituen denak, dokumentu esanguratsu batzuk aurkitu arte, tartean AEBetako Ingurumen Babeserako Agentziari 2000. urtean bidalitako gutun bat. Dupontek aitortzen du bazekiela PFASek kalteak eragiten zituztela osasunean, 1981etik ari zen bere langileei azterketak egiten, eta inguruko ur putzu edangarriak ere erosi zituen herritarrek ez erabiltzeko. Dena ezkutuan mantendu zuen ordea.

### **PLUTONIOA ABERASTETIK, ZARTAGINAK EGITERA**

Bigarren Mundu Gerran, Dupontek ustekabean PFASa sintetizatu zuenean, konturatu ziren erreakziorik sortzen ez zuen eta deskonposatzen ez zen material inerte hori ezin egokiagoa zela plu-

tonioa aberasteko eta isolatzeko. Arma nuklearrak lortzeko AEBetako Gobernuaren *Manhattan proiektu* barruan bonba atomikoa sortzen buru-belarri ibili ondoren, gerraostean bere altxor miragarria, tefloia, merkaturatu zuen. Geroztik, Dupontek eta 3M konpainiak eguneroko erabilerarako gero eta produktu gehiago egin dituzte PFAS mota ugariarekin, tartean C8 izenez ezagutzen den PFOA edo azido perfluorooxtanoikoarekin: zartaginetarako, kosmetikarako, margoetarako, jantzientzako, sua itzaltzeko aparrerako, mikrouhin labean erabiltzeko zorrozko...

Hasiera batean, PFASak sortzen dituzten AEBetako multinazional horiek dena ukatu zuten bere kontrako auzietan, baina hainbesteko froga eta ebidentzien aurrean, azkenerako milaka laguni milioika euroko indemnizazioak ematera derrigortu dituzte. Izan ere, gaur egun badakigu sustantzia horiek giltzurrunetako eta barrabiletako minbiziak sor ditzaketela, baita immunologia arazoak, ugaltze aparatuko eta tiroideetako gai-

xotasunak, hiperkolesterolemia ere, eta beste hamaika ondorio osasunean.

Tennan eta Billoten historia ezaguna zaigu, liburuetara eta pantaila handira eraman izan baita sarritan –azkenekoa *Dark Waters* (“Ur ilunak”) filmean–, eta duela gutxi Espainiako Datadista webguneak gogora ekarri digu berriz ere kasua, nazioartean egindako *The Forever Pollution Project* (“Betirako kutsadura proiektua”) kazetaritza ikerketaren harira.

### 17.000 TOKI KUTSATUTA EUROPAN

Kontua ez zaio arrotza egingo ARGIAko irakurleari, Zero Zabor blogean aipatu baikenuen pasa den otsailean, PFAS toxikoak kontrolik gabe zabaltzen ari direla eta Europako Batzordeak horien arautzeari ekin diola zioen albistearekin batera. Ikerketan hainbat hedabide esanguratsuk hartu dute parte, besteak beste Alemaniako NDR eta Suitzako SRF kate publikoek eta Erresuma Batuko *The Guardian* eta Frantziako Estatuko *Le Monde* egunkariak. Europar PFASekin kutsaturik dauden 17.000 toki eta kutsatuta egon daitezkeen beste 21.000

## Larrialdi klimatikoa edo Ozono geruzako zuloa bezala, PFASak “muga planetario” bat direla abisua jo dute adituek. Tibeten eta Ipar nahiz Hego poloetan ere aurkitu dira gai kutsagarri horiek

toki detektatu dituzte mapa bateratu batean, horretarako ehun datu-base baino gehiago kontsultatu eta metodologia zehatz bat erabilia.

*Le Monde*-k paratutako mapan, esaterako, Euskal Herrian hogoetik gora kokaleku ikus daitezke kutsatuta, eta dozenaka ustez kutsatuta daudenak, paper lantegietan eta industria kimikoarekin

zerikusia duten fabriketan hain oparoa den gure lurraldean. Natur guneen ur azalean ere aurkitu dira PFAS maila altuak, izan Pitillaseko aintziran, Urdabain edo Inurritzan.

Europar ezarriko diren debekuak leuntzeko, industria kimikoaren lobbyek egiten duten presioa ere azpimarratu dute hedabideok. Abokatu bulegoek eta “aditu” taldeek hilabeteak daramatzate lanean Europako Batzordean zentzu horretan eragiteko. *The Forever Pollution* proiektuko partaideek zientoka dokumentu konfidentzial atzeman dituzte Sustantzia Kimikoen Europar Agentziari zuzendutakoak, eta bistan jarri dituzte Chemours, 3M eta antzeko multinazionalak euren produktuak debeku horietatik kanpo geratzeko egin saiakerak.

Izan ere, PFASen orain arteko ihesbidea haren gaineko kontrolik eza izan da: neurtzen ez direnez, ezin da arazoa zein den jakin. Horretaz zerbait badaukite erraustegien kalteekin arduratuta dauden elkarteek, hondakinak erretzean sortzen diren dioxinak, metal astunak eta bestelako molekula kutsagarriak atzemateko araudietatik kanpo baitaude



**ARKEMA** Frantziako Estatuan, Rodano bailaran kimikoen multinazionalak PFAS kutsatzailerekin egindako isuriek kezka handia sortu dute herritarren artean. Irudian, Extinction Rebellionen ekintza bat.

EXTINCTION REBELLION FRANCE

oraindik konposatu kimiko arriskutsu horiek. Nolanahi ere, Euskal Herrian ToxicoWatch fundazioa ari da Zubieta inguruko PFAS datuak biltzen goroldio eta oilategietako arrautzetan, berandu baino lehen etor daitekeelako europar araudiaren zorroztea.

“Lurra bihurtu dugu bizitzeko leku zail bat”, azaldu dio *Le Monde*-eri Stockholmeko Unibertsitateko ingurumen-kimikako irakasle Ian Cousinsek. “Inguru guztiak kutsatuta daude, eta luzaroan halaxe egongo diren puntuan gaude”, gaineratu du. Larrialdi klimatiko edo Ozono geruzaren zuloa bezala, PFASak “muga planetario” bat direla abisua jo du irakasleak. Berrikitan aldizkari zientifiko batean argitaraturiko ikerketa batek dio mundu osoko eurietan aurkitu direla PFAO kimikoak, AEBetako Ingurumen Babeserako Agentziak segurutzat jotzen dituen kopuruen gainera, baita Tibeten edo Ipar eta Hego poloetan ere.

## DIPUTATUEN ILEAN ERE BAI

Kutsatzaile eternoen inguruan euskal herritar gehienek apenas berririk duten bitartean –Madrildik ez zaigulako politika kedartuaren usaina besterik iristen– Frantziako Estatuan gaia gero eta gehiago zabaltzen ari da. Ekainaren 28an, Europako Parlamentuko Ekologia-Berdeak taldeko hamalau diputatu frantziarrek euren biloetan egindako azterketa baten emaitza aurkeztu zuten: denek zituzten PFAS arrastoak.

**“Ekoizleak borrokan ari dira PFAS guztiak ez debekatzeko, banaka-banaka baizik. Eta milaka substantzia perfluoratu existitzen dira, 4.000 eta 12.000 artean. AEBetan estrategia horri esker lortu dute gaia korapilatzea”**

Horien artean da Nicolas Thierry ekologista okzitaniarra, kutsatzaile eternoen kontrako borrokan ahots ezaguna dena. “Seguruena azken hamarkadetakoa osasun eskandalu handienaren aurrean gaude”, azaldu du *Reporterre* hedabidearekin egindako elkarrizketan. Frantziako Gobernuak txostena argitaratu du PFASek ingurumenean dituzten ondorioak aztertzeke, eta Thierryren esanetan, Gobernuak hori argitaratzea “garaipen txiki bat da”. Bere esanetan gobernuak duela hogeitun urtetik dute arazoaren berri, baina ez dute ezer egin.

Frantziar lege bat onartzekotan dira, kutsatzaile eternoak debekatzeko 2025eko urtarrilaren 1ean. Europar Batasunean, mantoago bada ere, halako zerbait agintzea espero da 2027 urterako. Baina lobbyak ez daude geldirik: “Ekoizleak borrokan ari dira PFAS guztiak ez debekatzeko, banaka-banaka baizik –azaldu du Thierry–. Eta milaka substantzia perfluoratu existitzen dira, 4.000 eta 12.000 artean. AEBetan estrategia horri esker gaia korapilatzea lortu dute”.

## ARKEMA, “KIMIKOEN BAILARAN” HERRITARRAK POZOITZEN

Ilea aztertu duten diputatu ekologisten artean, konturatu dira batzuek bereziki kutsadura kopuru handia dutela. Charles Founierrek, adibidez, hamar bider gehiago dauka, eta Marie-Charlotte Garin Rodanoko diputatuari, berriz, ikertutako hamabi PFAS motatik zortzi atzeman dizkiote bere ileetan. “Kimikoen harana” ere deitzen diote hiri garrantzitsu ugari biltzen dituen lurralde horri. Izan ere, industria kimikoaren planta asko kukutu dira Rodano ibai zabalaren altzoan, tartean Lyonen dauden Daikin eta Arkema enpresak.


Arkema izena ez zaigu arrotza Euskal Herrian. Alonsotegin bazuen ekoizpen-planta bat, eta Hernanin, Urumea bazterrean PVC edo binilozko polikloruroa ekoizten zuen, orain Kem One SL enpresak gauza bera egiten duen tokian. Total petrolio konpainia erraldoiaren diruarekin sortua, Arkemari arazotxo bat sortu zaio Lyonen: hango herritarrak bere jarduera kantzerigenoaren kontra antolatu dira. *Reporterre*-k jaso du auzia, *Dans la vallée du Rhône, les polluants éternels d’Arkema empoisonnent la population* (“Rodano haranean, Arkemaren kutsatzaile eternoek herritarrak pozoitzen dituzte”) erreportajea.

“Normala al da etxe bakoitzean minbizi bat aurkitzea? Nire etxean minbizi dago. Pareko bizilagunak hirugarren aldiz izan du eta bere senarra ere hil egin zen. Gauza bera atzealdean dugun etxean...”, hala azaldu du Thierry Mounibek, Pierre-Béniten bizi den sukaldari ohiak. Lyongo metropoliaren hegoaldean zabaltzen den 10.000 biztanleko udalerririk horretan du Arkemak bere fabrika erraldoia. Aurtengo maiatzaren 25ean, Mounibek, beste herritar askorekin eta hamar elkarte eta sindikatuarekin batera salaketa penala jarri zuen

NICOLAS THIERRY



**FROGAK** Europa Ecologie Les Verts-eko hautetsiek euren biloei azterketa eginda erakutsi nahi izan dute inor ez dela kutsatzaile eternoetatik salbu. Irudian, Nicolas Thierry ekologista okzitaniarra azalpenak ematen, bere ezkerrean Marie-Charlotte Garin duela, PFASek arras kutsaturiko diputatua.



**KUTSADURAREN MAPA** Europako hedabide ugari egindako elkarlanari esker osatu dute PFAS edo konposatu kimiko perfluoratuekin kutsaturik dauden tokien mapa *Le Monde*-ek garatua. Gorri kutsatuta dauden tokiak, eta urdinez kutsatuta egon litezkeenak. Mapari zooma eginez ageri zaigu sorpresa: Euskal Herrian dozenaka kokapen daude, paper lantegi, industria kimiko, zaborra tratatzeko planta eta abarren artean. Gainera, ikerketaren arabera Iruñean Hutsman multinazionalak oraindik bere ekoizpenerako erabiltzen ditu halako gai kaltegarriak (morez).

Lyongo auzitegian Arkemaren aurka, PFAS kutsadurarekin amaitu dezan.

Urtebete lehenago, Pierre-Béniten kutsadura hori norainokoa den erakutsi zuen France 5 telebista kate publikoko *Vert de Rage* programaren ikerketa batek: Arkemaren ondoan dagoen kirol zelai munizipalean kutsatzaile eternoen tasa Europako estandarrek ezarritakoa baino 83 aldiz handiagoa da. Behin eskandalua lehertuta, Frantziako Gobernuko Ingurumen ministerioak ikuskaritza pasa zion fabrikari, eta ondorioa izan zen 2011tik 3,5 tona PFAS isuri dituela multinazionalak bi ur putzu dauden tokira; “eskualdeko 220.000 herritar kaltekuak izan litezke”, dio *Reporterre*-k.

Arkemaren Lyongo fabrika 1957tik dago funtzionamenduan eta aspaldi zuen PFASen kutsaduraren berri. 2003 eta 2016 artean bere langileei azterketak egin zizkien PFNA edo azido perfluorononanoikoa zuten jakiteko, eta emaitza izan zen tarte horretan %450 hazi zela kutsatzaile horren inpregnazio tasa langileen artean. Baina telebista publikoak argitara eman arte ez dute ezer jakin.

Eskualdeko osasun agintariek Lyon inguruko hamabost udalerritako bizilagunei gomendatu diete ez jateko hango oilategietako arrautza eta oilaskorik, ezta Pierre-Bénitetik behera ibaian harapatutako arrainik ere. Baina neurri

horrek batez ere ekologikoan ekoizten dutenei egingo die kalte: “Haserre nago, Estatuak baimendu duelako halako zerbait gertatzea, gu babestu beharrean”, azaldu du oiloak hazten dituen jubilatutako baserritar txiki batek: “Beldurra ematen du”.

Orain, salaketa judizialaren baitan odolean, ama-esnean eta eskoletako ur-edangarrian egindako analisi ofizialen zain daude herritarrak. Arkemaren isurien eta haien osasun arazoaren arteko lotura baieztatzen bada, indemnezioak eskatzeko auzi luze bat hasiko dute; AE-Betan Dupontekin gertatutakoaren *déjà vu* bat. Euskal Herrian ere izango ote dugu halakorik? ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)



# Vicente Madoz

PSIKIATRA HUMANISTA



## PANDEMIAREKIN AURKITU DITUGU IZAKI AHULAGOAK, ESTRES EGOEREN AURREAN GAINEZKA EGITEN DUTENAK



Azken mende erdi luze honetan Vicente Madoz psikiatra oso presente egon da Nafarroan osasun mentalaz, sexu-hezkuntzaz, bikote harremanez, adikzioez edo heriotzaz hitz egitean. 1960ko hamarkadan Ingalaterran ikusi eta ikasi zuena hona ekarri zuen, psikiatria berriaren oinarriak ezarrita. Bere helburua beti

izan da gaixo mentala gizartean integraztea, bere sendatze-prozesuaren protagonista eginez. Fermin Erbiti kazetariak elkarrizketa luze eta sakona egin berri dio eta maiatzean liburu moduan argitaratu zuen. Aspalditik Madozekin solas egiteko gogoia nuenez, liburuaz (eta Ferminenez) baliatu naiz harengana heltzeko.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

### **Inozenteen egunean jaio zinen eta zeure burua pertsona on gisa definitzen duzu.**

Bai. Nik tinko sinesten dut xalotasuna bertuterik handiena den onberatasunaren isla dela. Hala ere, jendeak ez du hau baloratzen. Nire ustez pertsona ona izatea gizaki izateko modurik onena da. Nire epitafioan "Pertsona ona izaten saiatu zen" jartzea gustatuko litzaidake.

Dena den, lotsatia eta oso burugorria ere izan naiz betidanik. Txikitan kasketa ikaragarriak harrapatzen nituen

eta behin Sarasate Pasealekuan biluztu nintzen arrebari orrazkera itsusia egin ziotelako protestan.

### **Eta harroputza ez izatea ere aholkatu zizuten gaztetatik, ezta?**

Hala da. Ni oso pertsona arrunta naiz, baina, ez dakit zergatik, beti oso liderra izan naiz. Jesuitekin ikasi nuen eta bertan ardura postu askotarako aukeratu ninduten. Unibertsitatean ere oso ospetsua nintzen eta ikasleen ordezkari hautatu ninduten hainbatetan.

Oso ona izan naiz beti ideiak edukiz eta ideia horiek gauzatzeko besteek lan egitea lortuz. Hori dela eta apaiz batek esan zidan kontuz ibiltzeko eta harroputza ez izaten saiatzeko. Ni, dena den, ez naiz berezia. 52 urte egon naiz jendeari aditzen eta aski garbi ikusi dut mundu guztiak dituela kontatzeko eta idazteko moduko istorio oso interesgarriak.

### **Zergatik ikasi zenuen psikiatria?**

15 urterekin antsietate krisi bat izan nuelako. Despersonalizazio krisi bat



# Vicente Madoz Jáuregui

IRUÑEA, 1939



Nafarroako Unibertsitatean ikasi ondoren, 1963tik 1967ra Oxforden jarraitu zuen formakuntza. Nafarroako Osasun Mentalaren garapena sustatzeko asmoz Argibide Fundazioa sortu zuen beste zenbait lankiderekin. Hainbat elkarte eta baliabide soziosanitariotan parte hartu izan du eta zenbait zentro psikiatrikotako zuzendaria izan da. Nafarroako Unibertsitateko irakasle izan da, eta Erizaintzako eta Gizarte Laneko irakaslea NUPen. Bere jarduera zientifikoa eta ikerketak bikoite-harremanak, heriotza eta dolu-prozesuetan ardaztu dira. Joan den martxoan Karlos III.aren Gurutzea jaso zuen, Nafarroaren garapenari egindako ekarpenagatik.

izan nuen. Etxean nengoen eta bat batean inguruko gauza guztiak mugitzen hasten zirela ikusi nuen, pelikula bat balitz bezala. Banuen sentsazioa hori dena ez zela erreala, eta ni ere flotatzen bezala nengoela. Aita medikua zen, pediatra, eta deitu nion, baina ez ninduen ulertu. Esan zidan tontakeriak esateari uzteko eta orduan ikusi nuen hori kontu serioa zela eta buruko arazoak sufrimendu latzen iturri izan daitezkeela. Horregatik 15 urterekin erabaki nuen psikiatra izatea. Psikologoa ez zitzaidan bururatu karrera oraindik ez zelako hemen existitzen.

## Konpromiso soziala zure bizitzaren ardatza izan da beti?

Zalantzarik gabe. Ezinbestekoa iruditu zait beti. 15 urterekin, adibidez, talde bat antolatu genuen Madrilerako joateko prentsa eta erlijio askatasuna eskatzera. Tren txartelak hartuak genituen eta guzti, baina gurasoek ez ziguten utzi.

Gizarte gaiak oso garrantzitsuak iruditu zaizkit beti eta ideia hori berretsi nuen 1963an Ingalaterrara joan nintzenean. Han beste gizarte bat ezagutu nuen. Egocera erabat desberdina zen. Han izan nintzen lau urtean ohartu nintzen hemen zegoena lardaskeria hutsa zela, zentzu guztietan eta 10-15 urteko atzerapena genuela.

## Zergatik joan zinen Oxfordera?

Nafarroako Unibertsitatean ikasi nuen, nahiz eta oso Opusen kontrakoa izan. Zaragozara joan nahi nuen ikastera, baina dirurik ez genuen. Gure aita pediatra zen eta zorionez ez genuen goserik pasatu gerra ostean, baina bost anaia-arreba ginen eta aitak irabazten zuenarekin aurrera atera ahal izan zuten familia batere luxurik gabe. Ikasle katoliko talde batean nengoen eta Opusen oso aurka ginen. Nahiko gorriak ginen.

Karrerako hirugarren mailan Psikiatria departamentuan sartu nintzen eta ikasketak amaituta han geunden batzuk kanpoan formakuntza jasotzeko beharra ikusi eta proiektu bat proposatu genuen. Bost kide Europa eta AEBetako hainbat unibertsitate

joan ginen gero hona itzultzeko eta unibertsitatean departamentu moderno bat egiteko asmoz. Hala egin genuen eta niri Oxfordera joatea egokitu zitzaidan, Felix Letamendia psikiatra donostiarraren laguntzarekin. Funtsezko etapa izan zen, bai ikuspegi profesionaletik, baita pertsonaletik ere. Honek betirako markatu ninduen. Asko ikasi nuen eta esperientzia gogorak ere bizi nituen, esate baterako Rosalind Bairstow paziente gazteak bere buruaz beste egin zuenean. Nik kendu behar izan nion soka lepotik eta gurasoei esan zer gertatu zen.

Han argi ikusi nuen karrera osoan ez zigutela heriotzaz hitzik ere egin. Hori eta sexualitatea tabu ziren unibertsitatean eta horiek dira hain zuzen ere, psikiatriaren oinarrietako batzuk.

## Nola zegoen psikiatria garai hartan Nafarroan?

Hemen Federico Soto psikiatra zen ildoa markatzen zuena. Berak esaten zuen nor zegoen erootxean sartzeko moduan eta nor ez. Hona itzultakoan Nafarroako Ospitaleko soto batean jarri nuen lehen kontsulta eta nire aurkako salaketa jarri zuen esanez berea zen eremu batean sartzen ari nintzela.

## Nolako psikiatria ereduaz ezagutu zenuen Oxforden?

Eroetxearen eredu gaitzen hasia zen espezialitate bat aurkitu nuen. Terapiakomunitatean oinarritzen zen psikiatria eredu hark beste profesional batzuk hartzen zituen barnean, hala nola psikologoak eta gizarte-lan-gileak. Gainera, pazienteak bere sendatze-prozesuan inplikatzeko bilatzen zuen.

Lehen psikofarmakoen erabilera ere ezagutu nuen han. Ordura arte ez zegoen ezer eta, adibidez, lo arazotarako koñak edo garagardoa edatea aholkatzen zen.

Aldi berean, drogen kontsumoak eragindako lehen arazo mentalak ikusten hasiak ziren. Horiek beranduago iritsiko ziren hona, drogen kontsumoaren zabalkundearekin batera. Hango gizarteak ez zuen batere zerikusirik hemengoarekin. Askoz ire-





kiagoa zen. Interes sozialak askoz presentego zeuden eta politikariek kasu egiten zieten herritarren proposamenei. Hemen guztiz kontrakoa gertatzen zen eta gertatzen da gaur egun ere. Horretan ez dugu batere aurrera egin, tamalez.

### Zer gertatu zen itzulitakoan?

Kanpoan ibilitakoek txosten bat egin genuen unibertsitateak eskatuta. Oso txosten ona egin genuen, baita gaur egungo psikiatriatik begiratuta ere, baina modernoegia enkargatu zigutenentzat. Besteak beste eskatzen genuen irakasleek errespetu osoa izan ziezaietela ikasleei. Nafarroako Unibertsitateko Errektoretzak azterketa jaso zuen eta segituan taldea desegin eta kide gehienak kanporatu zituen.

Orduan batzuk elkartu ginen SMEDA enpresa sortzeko. Han hasi ginen psikiatria berria egiten, psikologoak eta gizarte langileekin elkarlanean. Enpresa fundazio izatera pasa zen 1976an eta orduan Argibide izena eman genion. Buru arazoak zituzten pertsonak artatzeaz gain, lehen unetik gure helburua izan zen osasun mentalaren sustapena egitea. Laster hasi ginen osasun publikoarekin elkarlanean, eta 1986an egin zen Nafarroako Osasun Mentaleko Pla-

## Azken hitza GIDOIA

“Azken hamarkada hauetan gero eta gehiago nabaritzen da arazo baten aurrean beste norbaitek konpontzea espero dugula. Gaur egun, gazteen artean bereziki, ikusten ari garena da nortasun propiorik ez duen jende asko, kemenik edo pairamen ahalmenik ez duena. Psikologian 'Nia- ren indarra' deitzen duguna oso ahulduta dago. Informazio jario ikaragarria dago, baina ez dugu ezertan sakontzen. Gero eta gehiago bizi dugu unean unekoa eta oso azaletik. Ondorioz psikologo kontsultak, suizidioak, suizidio mehatxuak eta inoiz ez bezalako drogen kontsumoa izugarri ugaltu dira. Jendeak ez du bere burua lantzen. Gazteek honi eta besteari erantzunak emanez bizi dira, baina proposamenik egin gabe. Hor dago gako-koa. Norberak bere bizitzako pelikularen gidoia egin behar du”.

nean parte hartu genuen. Plan hark arre- ta psikiatrikoa irauli zuen. Psikiatrikoa hustea ekarri zuen, gaixo mentalak gi- zartean integratzeko. Nafarroa aitzin- daria izan zen estatu osoan. Urte luzez aritu ginen herrietara, zentro askotara eta ikastetxeetara joaten arre- ta eta for- makuntza ematera.

Hezkuntza sexualaren inguruko saio bat egiteko lehen aukera apaiz batek eman zidan. Acción Catolicak egoitza zuen Labrit pilotalekuan eta hango gela bat utzi zidan. Gero ikastetxeetan hasi nintzen eta Nafarroa osoan ibili nin- tzen 61 urte izan arte. Utzi nuen ikas- leek identifikatzen nindutelako gehi- aito- amonekin gurasoekin baino, eta orduan taldeko beste lankide bati pasa- nion eskoletako programa.

### Lehen Skolae egin zenuen, beraz?

Bai, baina tarrapatan. Horretaz gain, bi- kote terapia egiten nuen eta 35 urtez aritu nintzen ezkondu aurreko ikasta- roak emanez.

Heriotzaren gaia ere landu dut, Ma- drilen bereziki. Heriotzaz eta doluaz ikastaro asko eman nituen han. Horrela aritu nintzen 2011n iktus bat eman zi- dan arte. Medikuek esan zidan oso ur- duri jarriko nintzela behar nituen hitzak topatu ezinean eta hitzaldiak alde batera utzita idazten hasi nintzen. Hiru liburu kaleratu ditut jada.

### 35 urte baino gehiago osasun sistema publikoarekin elkarlanean aritu ondoren Argibidek itunpeko zentroa izateari utzi zion. Nola gertatu zen hori?

Duela zenbait urte beste psikiatria mota bat bultzatzen duten psikiatrak lehenes- ten hasi ziren. Haiek eroetxeetan oinarri- tutako psikiatrian formatuta zeuden. Gai- xo larriengan jartzen zuten arre- ta nagusia eta zentro oso onak egin zituzten, baina beste psikiatria komunitario hori ahaztu- ta utzita, orain COVID-19arekin, adibidez, horren beharrezkoa ikusi duguna.

Hala ere, Argibiderek in alor batzue- tan lanean jarraitu genuen, aldaketaren gobernuak bota gintuen arte. Uxue Bar- kosen agintaldia hasi zenean, 2015ean norbaiti bururatu zitzaion alor publi- koa sustatzeko fundazio pribatu bezala ezin ginela hor egon. Nik harreman ona banuen Uxue Barkos eta Koldo Martine- zekin, baina hala ere modu txarrean baz- terrean utzi gintuzten azalpenik eman gabe. Min handia eman zidan horrek.

Carlos III. Domina eman zidatenean

kalte hori konpentsatzeko saiakera bat zela iruditu zitzaidan.

### **Pandemiak zer ondorio izan ditu?**

COVID-19ak egoera kritiko batean harapatu gaitu, non giza naturaren indarra apur bat gainbeheran dagoen. Ez dugu osasun mentaleko arazo gehiago izan; hau da, eskizofreniak, nahasmen-du bipolarren kasuak edo beste patologien kopuruak ez dira handitu, adibidez, baina bai aurkitu ditugu izaki ahulagoak, estres egoeren aurrean gainezka egiten dutenak. Ez dira alterazio larriak, erreakzio desegokiak baizik. Horregatik esaten dut gure arazoa dela osasun mentalaren falta. Osasun mentala sustatu behar da pertsonak bizitzaren aurrean hobeto defenda daitezen.

### **Zer egin daiteke horretarako?**

Saiatu behar dugu pertsona guztiak beren barne-mundu propioa landu dezaten. Orain espiritualtasuna esaten zaion horrekin – ez erlijiosoan – barne-mundu hori bete, irizpide propioak gureganatu eta bizitzari zentzua ematen dioten balioak lortuta.

Bizitzan badira hiru garai oso garrantzitsuak eta horiei eman behar zaie arreta berezia: lehen zazpi urteak, nerabezaroa eta 50 urtetik gorako garaia. Lehen zazpi urteak erabakigarriak dira. Hor dena jokatzeko duzu, urte horietan pertsonaren oinarriak ezartzen direlako, eta hori gurasoek landu behar dute, haurraren heziketa eskolaren ardura-pean utzi gabe.

Nerabezaroa ere oso garai garrantzitsua da. Gazteek talka egiten dute gurasoekin eta horregatik gazteekin konektatzen duen heldu baten presentzia behar da. Heldu horrek esan behar die orain bizitza haien eskuetan dela eta haien pelikulako gidioa egin behar dutela, nahi dituzten balioak aukeratzu. Horretan oso garrantzitsuak izan daitezke kirol edo aisialdiko monitore eta entrenatzaileak, adibidez.

Gero aldaketaren adina dator, 50 urte inguruan, menopausiaren garaian, eta zahartzaroa. Adin tarte horretan osasun mentalik ez duten pertsonen ehuneko oso handia dago. Eta tristeena da adineko jendea ez zaiola laguntzen. Psikogeriatría plan bat aldarrikatzen

dut pertsona hauen ondoeza arintzeko. Zahartzaroan oraindik asko dago egiteko eta bizitzeko.

### **Etorkizuna nola dakusazu?**

Pentsatzen hasten naizenean beldurra sentitzen dut, baina nik fede handia daukat gizakiarengan. Uste dut paradigma berri bat behar dugula, dirua, arrakasta, ospea eta kontsumoa bezalako idoloetatik aparte. Humanizazioa behar dugu eta hori geure burua, gainerako bizidunak eta natura zaintzean datza. Eta, era berean, gehituko nuke horretarako ezinbestekoa dela feminismoa, hau da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea. Honetan guztian dago XXI. mendeko gizateriaren etorkizuna. Hori dela eta norabide horretan mobilizatzen hasten diren kolektiboak edo ekimen komunitarioak bultzatu behar dira, eta horretan hedabideen zeregina oso garrantzitsua da. Argibide Fundazioa edo ARGIA aldizkaria bezalako ekimen txikiak lagundu dezakete mobilizazio horretan eta hori da babestu behar dena. ●

Irail-urrikoa, kalean!

**EUSKARA  
IRAKASLEA  
ZARA?  
IRAKASLEA?**

- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza [aizu.eus](http://aizu.eus) atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



## Aldaketak unibertsitatean

**A**zken aldian aldaketak gertatzen ari dira Hego Euskal Herriko unibertsitateetan. Uztailaren amaierako hauteskunde espainiarren aurrerapenak aldaketa horietako batzuk azkartu zituen, eta beste batzuk gelditu edo atzeratu. Espainiako aurreko koalizio gobernuan unibertsitateen alorra Podemosen esku zegoen, eta alderdi moreak zenbait proposamen zituen esku artean unibertsitateetako egoeran eragiteko. Azpimarratzekoa da unibertsitateetako araudi orokorre bidezko erabaki garrantzitsuenak Euskal Herriatik kanpo hartzen direla; bestela esanda, burujabetza maila ahula dugula goi-ikasketa eta ikerketaren arloan.

Aurrera egin ez duten proiektuen artean hezkuntza alorreko unibertsitate ikasketen erreforma saiakera dugu, maila publikoan ia oihartzunik izan ez duena. Haur eta Lehen Hezkuntzako titulazioen aldaketa sakona proposatu zen otsail-martxoan aldean. Proposamena Podemos bezalako alderdi batek bultzatu arren, hezkuntzaren ikuspegi nahiko akritikoa gailentzen zen bertan, nire ustez (edukietan klase soziala edo desberdintasun sozioekonomikoak aipatu ere egin gabe, adibidez). Baina, horrez gain, izaera zentralizatzailea ere bazuen, orain arte baino eduki gehiago erabakitzen baitziren Espainiatik, eta unibertsitateetatik bertatik eta, gure kasuan, Euskal Herriatik edukiak zehazteko gaitasuna izugarri mugatzen zen.

Proposamen hori, hainbat arrazoi

Espainiako Estatuko beste unibertsitate askotan LOSU prekaritatea mugatzeko tresna izan badaiteke ere (hala izatea espero dut), gurean lan baldintzak kaltetzeko tresna da

tarteko (besteak beste, aurkakotasun handia eragin zuelako), kaxoian gorde bazen ere, ez da berdin gertatu oihartzun handiagoa izan duen LOSU unibertsitate lege berriarekin. Legea egiteko hainbat arrazoi mahai gaineratu ziren: irakasle eta ikertzaileen lan baldintzak hobetzea, unibertsitateko gobernanta demokratizatzea, eta abar. Araudiak, noski, badu sarrera bat, non unibertsitateak finantzaketa handiagoa behar duela adierazten den, Europako parametroetara gerturatzen joateko. Zehazki, BPGaren %1 unibertsitate bideratzeko asmoa adierazten da (egun EAEn, adibidez, %0,4 erabiltzen da horretarako). Esan bezala, baina, asmo horiek ez dute lege izaerarik.

LOSU indarrean dago, eta aplikatzen hasi da. Bere helburu garrantzitsuene-



IKER IRAOLA ARRETXE  
EHU-KO IRAKASLEA

takoari dagokionean, langileen prekaritatea mugatzeari dagokionean, egoera paradoxikoa gertatu da. EHUko sindikatuek eta Langile Prekarioen Koordinadorak salatu duten bezala, ordezkapenen lan baldintzak izugarri okertzen hasi dira lege berria indarrean sartu orduko. Ordezkapenetan, hemendik aurrera, irakaskuntza orduak soilik ordainduko dira, eta horrek soldatak asko jaitea ekarriko du. Irakaskuntzaren kalitatean ondorioak ere izango dituela esan gabe doa. Egoera paradoxikoa dela aipatu dut lehen, berez lan baldintzak hobetzeko xedea zuen lege bat erabiliko baita, EHUren kasuan, lan baldintzak izugarri kaltetzeko.

Egia esan, legearen beste interpretazio bat egin zitekeen. Hala egitea espero dut, bestela aipatu eragileek adierazi duten bezala, udazkenean gatazka piztuko baita EAeko unibertsitate publikoan.

Baina, horrez gain, auzi honek hasieran aipatutako subiranotasun faltarekin ere lotura badu. Eta ez soilik Euskal Herriatik kanpo erabakitako lege batez ari garelako, baizik eta beste lurralde batzuetako beharrak kontuan hartuta egindako araudia delako. Espainiako Estatuko beste unibertsitate askotan prekaritatea mugatzeko tresna izan badaiteke ere (hala izatea espero dut), gurean lan baldintzak kaltetzeko tresna da, momentuz; eta, edonola ere, ez da gure beharrianetarako tresna eragin-korra izango. ●

# Ez dira betiko garai onenak



MALORES ETXEBERRIA



PAULA ESTÉVEZ

**E**skubide urraketa, auzibide, epai eta akordio politiko erasokorrek markatu dute pasa berri dugun ikasturtea. Euskararen eta euskaldunon aurkako jarrera aktibatu egin da, lehenaz gain, eta horrek kezka eta haserrea eragin ditu euskaldunon komunitatean.

Euskararen normalizazioa arautzen duten lege eta dekretuek zirrikituak dituztela diote legelariak, borondate politikoa aldekoa denean arazo handiegirik eragiten ez dutenak, baina urak harrotzen direnean behar adinako babesik ematen ez duten legeak direla diote. Aspalditik ari dira eragile sozialak zirrikituak ixteko beharra azpimarratzen eta legeak aldatzeko prozedurari ekin beharra aldarrikatzen.

Legeak aldatzea badakigu ez dela hain sinplea izaten. Aldatzeko ahala dutenek nahi izatea izango da beti lehenengo pausoa eta ez dut uste, euskararen kasuan, horretan gaudenik gaur gaurkoz. Bide horrek, beraz, luze jo dezake eta energia asko kontsumitu arazi euskararen aldeko militante, mugimendu eta eragile sozialei, eta beren esku egon daitezkeen eguneroko beste lan batzuetatik aldendu.

Erresistentziarako garaiak datoz. Aurrreratutakoari eustea izango da lehen helburua, atzera ez egitea, oso hauskorra baita egoera, hobetzea lortu den eremuetan ere: nola bermatzen da udal batean, esaterako, korporazioa osatuko duten hautetsiek euskaraz jakitea eta ez dela euskaraz sortzen den testua inorentzat sistematikoki itzuli beharrik izango? Gai izango al da administrazio bat dirulaguntza oinarrien hizkuntza baldintzei eusteko kirol klub bateko zuzendaria kexaka eta mehatxuka datorenean baldintza horiek medio bere kluba baztertzen ari direla esanez? Zer gerta daiteke zerbitzu bat kontratatzeko pleguetan hizkuntzazko betebeharrak gehiegizkotzat jotzen baditu udal korporazio berri batek? Nork izango du kementa eta indarra eusteko?

Hain da juxtukoa egoera, atzera ez egiteko moduak bilatzea izango dela lehenetsua. Eustea. Eta behin hori ziurtatuta, aukera dagoen eremuetan, legearen bazterretik aurrera egiteko zirrikituak bilatzea izango da erronka, orain arte bezalatsu. Ez da ahaztu behar euskara hutsez aritzeko aukera udal batzuek ireki zutela ondo kostata eta bo-

rroka asko eginda. UEMAko udalerriek badakite zerbait horretaz. Geroago etorri ziren onarpenak eta lege aldaketak, eta, behin martxa hartuta, bazirudien legeen berritze prozesu horrek aurrera egin zezakeela, agerikoa baita ez diotela erantzuten egoera berriari eta, are gutxiago, euskararen normalizazioan jauzi kualitatibo emateko beharri.

Bide luzea eta liskartsua aurreikus zitekeen, dudarik gabe, legea aldatzeko beharra onartzea, kontsentsuak lortzea eta erabakiak hartzea konplexua baita, baina uste ez genuena da 2023an legearen bazterretik jarraitu beharko genuela ustez lortuak genituen eskubideei eusteko, eta badirudi bidezidorretatik ibiltzea egokituko zaigula berriro ere. Ez dela eroso? Ez. Errazagoa da araudiak dioena betearaztea, kontrako norabidean tira behar ez izatea, legeari zirrikiturik aurkitzeko ahaleginik egiten ez duen goi funtzionarioen bat konbentzitzeko etengabe argudioak bilatu behar ez izatea, eta abar. Baina, aurrera egingo bada, herri langileak militante ukitu bat beharko du berriro ere, administrazioak desobediencia puntu bat, eta, herritarrok, presioa egiteko adorea. ●

# Alienak eta hondamendiaren turismoa



SUKAR HORIA

**A**tzean utzi ditugu udako hilabeteak eta aurtengoan ere hizpide izan dira klima larrialdiaren adierazle diren hainbat muturreko gertakari meteorologiko eta horien ondorioekin lotutako albisteak. Besteak beste, ozeano eta itsasoe-tako tenperatura igoeren, Mediterraneo inguruan zabaldu diren suteen, tenperatura errekor berrien, uzta galeren, lehordeen eta uholdeen berri izan dugu.

Testuinguru horretan, hainbat turista Kaliforniako hego-ekialdean dagoen Heriotzaren haranera hurbildu dira. Aire girotudun kotxeetatik irten eta 55 gradu zentigradu markatzen zituen termometroaren aurrean atera dituzte argazkiak. Horrela hilezkortu dute Lur planetan inoiz izandako tenperatura altuenaren unea bizitzearen momentua. Eta hori guztia, AEBetan, aurrekaririk gabeko berrote handienaren erdialdean. Bizi dugun krisi ekosozialaren testuinguruan, aipatutako fenomenoak hondamendiaren turismo izendatzeko ezaugarri guztiak betetzen ditu.

Bestalde, bolo-bolo ibili dira uda hone-tan alienekin lotutako albisteak ere. AEBetako militar ohi batzuek, herrialdeko kongresuaren aurrean, esan omen dute gobernuak alienen ontziak eta arrasto biologikoak ezkutatzeko dituela.

Hasierako gaiak orain aipatutakoarekin inongo loturarik ez badu ere, gai biak

elkarrekin lantzeak krisi ekosozialaz go-goetatzeko aukera ematen digu. Kasuaren inguruan pentsatzen hasi eta ondorengo galdera datorkigu burura: zertara etorri-ko ote dira alienak Lur planetara? Zientzia fikzioa eta herri kulturaren arabera, alienak Lurra konkistatzera etorri ohi dira. Baina, zer dute hemen konkistatzeko? Meatzaritza espaziala egitera etorriko ziren agian? Zientzia fikzioan ez bezala, errealitatean, laister hemen ez da egongo zer konkistatu eta zer lapurtu, dena agor-tze bidean baikau. Gainera, nork konkistatu nahiko luke gero eta bizigaitzagoa den planeta bat?

Hori dela eta, hipotesiak egiten jarrita, estralurtarrak, agian, etorkizuneko destino turistikoaren berri izatera etorri diren espazioko bidaia agentzia batekoak izan liratekeela pentsa genezake.

Argi dago, Lur planetan, kapitalismo basatiaren logikarekin jarraituz, aukera guztiak izango ditugula espazioko izakiek hemen hondamendiaren turismoa praktikatzeko. Aspalditik jakin baitakigu bizi-tzak erdigunean jartzen ez dituen sistema ekonomiko eta politiko honek basakeriara garamatzala. Turista alienak ez baditu-gu nahi, antolatu beharko gara –oraindik garaiz baikau– hondamendizaleentza-ko interesgarria izango ez den leku bat elkarrekin borrokatzeko, eztabaidatzeko, sortzeko eta eraikitzeko. ●

# Ikasturte hasiera beroa

ARANTZA GUTIERREZ  
EHU-KO IRAKASLEA

**E**satea topiko bada ere, irailerako ikas-gaiak utzi zituen EHUko zuzendarit-zak. Izan ere, irakasleen aurreikusit-ako lizentzia eta baja batzuk betetzeko beharrezko ordezkapenak ez zirela heldu-ko jakin zuten sail batzuek udako oporren bezperan. Beste aldetik, ordezkapenak egiten dituzten hainbat irakaslek ez zeki-ten zein motako kontratua izango duten irailetik aurrera. Salatu dutenez, Uniber-tsitate Sistemaren lege espainiarrak eza-rritakoa zuhurregi aplikatuz, irakaskuntza baino ez zaie aitortuko eta ordainduko, eta hori ere ez osotasunean, ez baita kon-tuan hartuko formakuntza- eta prestakun-

tza-denbora, eskola- zein tutoretza-or-duak baizik. Horren aurrean, irakaskuntza antolatu behar dutenak kezkatu-rik daude eta beldur daude joko-arau berrie-kin are zailagoa izango ote den arlo batzue-tan orde-zko irakasleak lortzea. Bestetik, zu-zenean kalteturikoek mobilizazioak ira-garri zituzten, eta irtenbide adostua lortu ezean, gerta liteke ikasturte-hasiera beroa izatea honakoa. Hala ere, ikusteke dago, asko baitira azken urteetan aldebakarrez administrazio-tik inposaturiko neurriak, ia erantzun sozialik eragin ez dutenak, azken finean batzuek uste baitute langile pribile-giatuez ari garela. ●

# Euskaraz bizi nahi dugu?



ENEKO OROZ ORMAZABAL ETA  
IRUÑE ASTITZ LARUNBE  
SAREKO EDUKI SORTZAILEAK

**G**ure egunerokoa pantailek presentzia oso handia dute. Izan ere, zenbat aldiz begiraten diogu mugikorrari egunean zehar? Eta tablet, ordenagailu edota telebistari?

Zorionez, gero eta gehiago hitz egiten ari da pantailez. Pare bat asteko tartean, hiru aldiz irakurri dugu haien inguruko aipamenen bat prentsa idatzian. Horiek irakurtzean hainbat zalantza sortu zaizkigu: zertaz ari gara pantailetaz hitz egiten dugunean? Zer ikuspuntutatik hitz egiten da pantailen inguruan?

Azken aldia, tamalez, pantailetan euskara sustatzearen aldarrikapena *streaming* plataforma zein telebista formatuetara bideratuta dauden ikus-entzunezkoetara mugatu da. Izan ere, pantailen inguruan sare sozialetako edukiaz hitz egiten denean, gehienetan, kanpo mehatxu bezala ikusten da.

Sarea, eta bereziki, sare sozialak hizkuntza hegemonikoei (gaztelania, frantsesa edota ingelesa, adibidez) atea irekitzen dieten tresnak direla aipatu izan da, garai batean rockarekin gertatu zen bezala. Baina, gaur egun, rocka ez al da euskal musikaren parte? Zenbat pertsona gerturatu dira euskarara garai batean gure hizkuntzarentzako mehatxutzat hartu zen musika estilo horri esker?

Sarea gure egunerokoa presentzia

Gurea bezalako  
hizkuntza komunitate  
batean ezin dira  
gutxietsi Sareak  
hizkuntzaz gozatzeko  
eta normalizaziorako  
ematen dituen aukerak

handituz joan den heinean, euskara erdigunean duten proiektuak sortu dira. Bere garaian Hertzainak edo Zarama taldeek rockarekin egin zuten moduan, hainbat lagun pantailetan edukia euskaraz sortzen gabiltza, atsegin ditugun ikus-entzunezkoak euskaratzen ari gara eta bideojokoen, rolaren, manga eta animaren, zinemaren zein *Kodi* bezalako tresnen zaleok elkarguneak sortu ditugu Sareak eskaintzen dituen aukerak baliatuta. Inork ezer esan gabe antolatu eta martxan jarri gara, bozgorailuetatik pantailak munduaren akabera direla esaten den bitartean.

Gero eta jende gehiago gara Interneten euskaratik eta euskaraz bizitzeko bi-

dea egiten gabiltzanak; Youtube, Twitch, Tik Tok eta Instagram bezalako sare sozialetan edukia sortuz edota puntako film, telesail zein bideojokoak euskaraz egon daitezen lan eginez, adibidez.

Hala ere, gaur egun, euskaldun gehienok sare sozialak, *streaming* plataformak edota bideojokoak erdaraz kontsumitzen ditugu eta bilaketak erdaraz egiten ditugu. Izan ere, askotan ez dakigu atsegin dugunaren inguruko edukia euskaraz dagoen, eta egotekotan non edo nola topa daitekeen.

Pantailei buruz eztabaidatzeak beharrezkoa izaten jarraitzen duen bezala, gurea bezalako hizkuntza komunitate batean ezin dira gutxietsi Sareak hizkuntzaz gozatzeko eta horren normalizaziorako ematen dituen aukerak.

Horregatik, oso garrantzitsua da euskara erdigunean duten proiektu eta edukiak bultzatzea: sare sozial ezberdinetako eduki sortzaileen lana ezagutzera emanez, gai espezifikoaren inguruko euskarazko komunitateak sustatuz, Zer Non Ikusi bezalako tresnak ezagutu eta zabalduz edota euskarara itzultzen, bikoizten edo azpitudulatzen direnak kontsumituz, adibidez. Beraz, euskaraz bizi nahi dugun heinean, garrantzitsua izango da halako espazioak ezagutu eta kontuan hartzea. ●



EUSKAL HERRIKO  
HAZI EKOLOGIKOAK

Leunda Berri Baserria  
Beizama, Gipuzkoa

EGIN ZURE  
HAZI ESKAERA!

[www.aleka.eus](http://www.aleka.eus)

- . BASERRITARRAK SAREAN
- . AGROEKOLOGIA
- . BIOANIZTASUNA
- . BERTAKO EKOIZPENA



# ARGIA

## BABESTEKO



## ARRAZOI

### 1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langileona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdiren.

### 2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

### 3. HEDABIDE DIGITALA ETA DADEREKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

### 4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIAN jendartearen eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

### 5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

### 6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugariarekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

### 7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

### 8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorroetan.

### 9. 100 URTETIK GORA

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

### 10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

### 11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARPIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

**TXIKITIK ERAGITEN** [argia.eus/eginargiakoa](http://argia.eus/eginargiakoa)



# HIL GAITZAZUE!

2021eko abuztuaren 15ean, talibanek Kabul mendean hartu zutenean, milaka afganiar ihes egiten saiatu ziren. Soilik hilabete hartan, 35.000 pertsona baino gehiagok zeharkatu zuten Pakistango muga, eta 2022. urtea hasi orduko 145.000 ziren beste aldean. Aldiz, gertakari horien harira, baina baita iraganean afganiar gehien hartu dituen herrialdea izan arren ere, Pakistanek ez dauka errefuxiatuen afera kudeatzeko legiaziorik ezta haien asilo eskubidea bermatuko duen

legerik ere. Human Rights Watch erakundeak salatu duenez, nahiz eta Iheslariarentzako Nazio Batuen Goi Mandataritzak (UNHCR) bertan egoitza iraunkorra duen eta eskumena badagokio ere, Islamabadeko Gobernuak organismo horren esku-hartzea oztopatu besterik ez du egiten, eta 2007az geroztik ez dio errefuxiatu estatusa aitortu Afganistandik iritsitako herritar bakar bati. Milioika pertsona, familia bereko hiru belaunaldi kasu askotan, linbo legalean bizi dira.

 IGONE MARIEZKURRENA

**K**ill us!". Hil gaitzazue, alegia. Hitz bi aldarri hartuta, sei hilabetez, 4.700 afganiarrek etenik gabeko elkarretaratzea egin zuten Pakistango Prentsaren Klub Nazionalaren egoitzaren aurrean, Islamabaden. Talibanak Kabulen sartzearekin batera beren herrialdea atzean utzi eta sei hilabetera hasi zuten protesta, Islamabadeko Gobernuak errefuxiatu izaera aitortu ziezaien exijitzeko. Irakasleak, giza-eskubideen aldeko aktibistak, kazetariak, soldaduak eta funtzionarioak ziren gehienak. "Gure bizitzak arriskuan daude, baina ez gaituzue babesten, ezin dugu lanik egin, gure seme-alabek ezin dute ikasi, ez gaituzue ikusi nahi... Zer geratzen zaigu, bada? Hil gaitzazue!", zioten eskuz idatzitako pankartek.

"2022ko apirilean ezarri genituen karpak -dio Mohammad Jan Ahmadyk-, eta urte erdiz hementxe segitu genuen gau eta egun, baina hona ez zen ordezkari instituzionalik edo politikaririk hurbildu", kexu da. Sasoi hartan bizitoki izan zuten belardia zapaldu dugun une berean ilundu zaio gogo: "Hedabide bakar batek ere ez zuen erreportaririk bidali, eta ziur naiz atzerrira ez zitzaizuela gure berririk iritsi". Ahmady kazetaria da, *Silk Road* astekariaren editorea izan zen Afganistanen bizi izan zen artean, eta oraindik ere telelanean segitzen du, talibanek eta ISIS-KP taldeek (Khorasan Probintziako Estatu Islamikoa) hazara gutxiengo etnikoaren aurka egindako sarraskiak argitara ekartzea baita bere gogo bizia.

"Gure herriaren aurkako jazarpena XIX. mendean hasi zen, eta orduz geroztik bazterkeria sistematikoa, estortsioa, bahiketak, torturak, exekuzio sumarisimoak eta hilketak nozitu ditugu Afganistanen", dio. Talibanek boterea berreskuratu aurreko hilabeteetan, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) halako hogeitik gora atentatu erregistratu zituen, 150 hildako baino gehiago, eta ehunka zauritu. "Orain han ez dago nazioarteko lekukorik -gehitu du Ahmadyk-, eta gure anaia-arreben aurkako erasoak inoiz baino gordinagoak dira". *Silk Road*-ek maiatzean argitaratu zuen *Silent Crime* erreportajeak jasotzen duenez, ISIS-KP-k 310 lagun hil ditu Kabul eta Kandahar herrietan, eta talibanek, babestuko zituztela zin egin zuten arren, hamarnaka hazara



Pakistango Prentsaren Klub  
Nazionalaren egoitzaren  
aurreko belazea zazpi  
hilabeteko etenik gabeko  
protestaren lekuko izan zen.



erail dituzte Daykundi probintzian, eta 25.000 pertsonari lurrak kendu dizkiete eta lekualdatzera behartu dituzte.

Ez AEBek, ez Afganistan inbaditu osteko trantsizio administrazioek, 2004-2021 aroan Errepublikan Islamiarra gobernatu zuen presidentetza bakar batek ere ez du batzorde berezirik abiatu hazara xiiten aurkako genozidioa ikertzeko. Haienganako axolagabekeria erabatekoa dela sentitzen du Ahmadyk: “Eta ez pentsa Pakistanen seguru gaudenik, hemen ere asko baitira Islamaren muturreko interpretazioa egiten duten suniak”. Gainera, aurrejuzgu etnikoengatik diskriminatzen dituztela dio. Eurentzako irtenbide bakarria hirugarren herrialde batek hartzea dela uste du.

“Pakistango Polizia jendea atxilo-

tzen hasi zenean, elkarretaratzea bertan behera utzi genuen –azpimarratu du Mohammad Zamanek–, gure segurtasuna lehenetsi genuen”. NBERen azpi-organismo batentzat lan egin zuen Zamanek Afganistango Takhar probintzian, eta hilabete gutxiren buruan bere familia halako bizi-baldintzetan ikustea atsekabegarria izan zela aitortu du: “Hemen ez genuen uririk, herritarrek ematen zigutena jaten genuen, komun publikoetara edota meskitetara jo beste aukerarik ez genuen, eta osasun arazoak izan genituen higiene faltagatik, baina duin eutsi genion gure aldarriari”. Ia egunero agenteak zokomiran ibiltzen zirela gogoratu du, “kriminalen antzera” begiratzen zirela. “Batzuetan, inongo agindu judizialik gabe jendea atzeman,

komisariara eraman eta ordu luzez atxikitzen zituzten”. Galdeketa horietan, hitzezko tratua bortxazkoa izaten zela dio Zamanek, “bereziki emakumeen aurka”, eta mehatxu egiten zirela. Giltzapean zeuden zazpi protestari askatzearen truke desegin zuten kanpalekua, 2022ko urriaren 15ean.

Oraindik elkarren berri izaten saiatzen direla azaldu du Zamanek, baina nor bere biziraupena bermatzearekin nahikoa lan dutela. Batzuk, “zorione-koak”, Pakistanen dauzkaten senitateko esker aurrera egiten ari dira. Beste familia batzuk partekatutako etxeetan pilotuta bizi dira, “eta besterik ez dutenek, bada, parke honetan segitzen dute –hasperen egin du–, eskean aritzen dira edo benefizentziak laguntzen ditu”. Pro-



### Mohammad Zaman

(Takhar, Afganistan, 1973)

Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoaren (OHCHR) baitako Alliance of Civil Society and Human Rights Institutions erakundearen buru Afganistango Takhar probintzian.

“NBEk saldu egin gaitu eta eurengandik jada ez dut ezer espero, baina Mendebaldeko herritarrei esan nahi dizuet: zuen gobernariak konfiantza eta kolaborazioa eskatu ziguten haien programa ustez demokratikoa Afganistanen inplementatzeko, eta guk gure onena eman genuen. Zuen erakundeekin aritu ginen eskuz esku gure bizitza arriskatuz, batzuk NATOren fronteetara ere batu ziren, askori gaztaroa joan zaie horretan, ez dira gutxi familia-burua talibanen eskuetan galdu dutenak... eta orain zer? Atzean utzi gaituzte! Talibanak bonba eta beldur kolpez iritsi dira boterera, eta nazioarteko komunitatea proiektu horren konplize dela ikusten ari gara. Izan ere, Afganistanen harrapatuta dauden gure seme eta bilobak bahitzen ari dira, *madrassetan* (eskola islamiarrak) burua jan eta etorkizuneko terrorista suizida bilakatzeko”.



### Adila Akhtari

(Kabul, Afganistan, 1972)

Irakaslea eta Afganistango Youth Power Organization erakundearen kidea.

“Hemen ez daukat lan egiteko baimenik, ezin dut irakasten segitu, eta gure seme-alabak deprimituta daude ezin dutelako eskoletara joan. Aurrezkiak hartuta ihes egin genuen, baina agortzen ari zaizkigu eta Pakistanen ez daukagu diru-sarrerarik. Nire senarrak Europako Bata-sunaren Afganistanerako Polizia Misioarekin (EUPOL European Union Police Mission in Afghanistan) kolaboratu zuen talibanen aurka, eta azken horiek 2016ko azaroan garbitu zuten tiroz. Ez nuen inoiz kalte-ordainik jaso, ez eta inoren deirik edo dolumin-mezurik ere. Ez zidan inork galdetu zer moduz nengoan, nola sentitzen nintzen, ezer behar ote nuen. Nire moduan senarra galdu duten ehunka edo beharbada milaka alargun daude Afganistanen, askok ez daukate jatekorik eta umeak gosez hiltzen ari zaizkie”.

testa antolatua bai, baina afganiarren aurkako jazarpena ez da eten. Iragan ekainaren 5ean, Poliziak 175 lagun atzeman zituen Islamabaden. Bezperan, Frantziar oporretan zela, Pakistango Armadako Bajwa jeneralari afganiar errefuxiatu bat hurbildu zitzaion kalean, eta era baketsuan baina irmo gaitzetsi zuen Pakistango Ejertzitoak afganiar iheslariekiko duen jokabideagatik eta giza-eskubideak urratzeagatik. Bideoa birala egin zen, eta hurrengo egunean heldu ziren atxiloketak. Ondorengo asteetan eta lerro hauek idatzi bitarte, beste 500 pertsona giltzapetu dituzte. Erreportaje honetarako elkarrizketetan itzultzaile Fatima Atif aritu zen, Human Rights Commission of Pakistan (HRCP) erakundeko kidea, eta, bere hitzetan,



Kanpaleku antolatua aspaldi desegin zuten arren, beste aterabiderik ez duten afganiar familia zenbaitek bertan bizitzen segitzen dute.



### Zohra Jan Wahedi Akhtari

(Kabul, Afganistan, 1984)

Emakumeen eskubideen aldeko aktibista. Afghan Women's Political Participation Network eta Afghan Women's Movement erakundeetako kidea.

“Egunak eman genituen Torkham-eko pasabidean, mugan zain, pasaporte eta gure aktibismoa frogatzen zuten dokumentuak aldean eraman arren oso zaila izan baitzen zeharkatzea. Trafikatzaileak hantxe zeuden, Pakistango Poliziarekin nahastuta, eta ahal izan zuten familiek kide bakoitzeko 2.500 dolar estatubatuar ordaindu zieten pasatzen uztearen truke. Enbaxadek ere ustelkeriaz jokatzeko dute Islamabaden, eta eroskeria onartzen dute: 1.000 dolar asilo politikoa eskuratzeko prozesua bizkortzeko. Dena dela, asilo programa horiek oso mugatuak dira; Espainiak, adibidez, 6.000 zenbaki besterik ez zituen igorri. Egunero 3.000 errupiatik gora (9,60€) xahutzen ditut enbaxada batera eta bestera hots egiten, nire eskaeren egoera zertan den jakiteko. Gure kabuz ari gara, UNHCR-k ez digu ezertan lagundu”.



### Mohammad Jan Ahmady

(Ghor, Afganistan, 1990)

*Silk Road* astekari afganiarraren editorea eta hazara etniako kidea.

“Talibanek boterea hartu zutenean, ‘akabatu beharreko’ 1.500 afganiarren zerranda osatu zuten, muga guztietara bidali zuten eta Barne ministro berriak Twitter bidez zabaldu zuen pertsona horiek labanaz hiltzeko deialdia. Berriki bi akabatu dituzte era horretan Karatxin eta Peshawarren. Hazara garenok sartu-irtenak debekatze-ko agindua ere igorri zuten eta, hortaz, ahal izan genuen moduan, aurpegiak estalita, ihes egin genuen. Afganistango enbaxada bizi-bizirik dago Islamabaden, talibanak hemen ere badaude; konplize ugari dituzte Pakistanen, besteak beste, egungo erregimenean postua duten askok Peshawarko Unibertsitatean (Pakistanen) ikasi zutelako. Bikotekidea eta biok, iritsi ginenetik, hiru aldiz lekualdatu gara; gure hazpegiengatik erraz identifika gaitzakete eta hilko gaituzten beldur gara”.

azkenaldiko atxiloketa horiek burutu dituzten gizonek ez zuten kotxe ofizialik eta kale-jantzian zeuden.

“Gure militantzia dela-eta talibane- nek jomugan gaituztela frogatu dugun arren, Pakistango Gobernuak ez gaitu errefuxiatutzat hartu –ahotsa urratu egiten zaio Adila Akhtariri–. UNHCR-k ez gaitu erregistratu, ezta ofizialki asilo eskatzaile izaera emango ligukeen dokumentazioa izapidetu ere!”. Halakorik gabe, giza-eskubide oinarrikoenak (lana, hezkuntza, etxebizitza eta osasuna) ukatu dizkietela dio, “beldurrik gabe bizitzeko eskubiderik ere ez omen daukagu”. Izan ere, 2022ko abenduaren 31z geroztik deportazio mehatxupean daude. Pakistango Gobernuak hori ezarri zuen muga-data moduan, eta aurre-rantzean paperik gabeko iheslariren bat atzemanaz gero berehala Afganistanera itzularazteko agindua eman zuen. Foreigners Act 2016 legeak hiru eta hamar urte arteko kartzela-zigorra aurreikus- ten du kasu horietarako. Society for Hu-

“ ”

Hazaren aurkako jazarpena XIX. mendean hasi zen, eta orduz geroztik bazterkeria sistematikoa, estortsioa, bahiketak, torturak, exekuzio sumarismoak eta hilketak nozitu ditugu Afganistanen

MOHAMMAD JAN AHMADY

man Rights and Prisoners’ Aid (SHARP) erakundearen zuzendari Muhammad Mudassar-i galdetuta, 700.000 “iritsi berri” (2021eko abuztu ostekoak) ei daude egoera horretan.

Adila Bigarren Hezkuntzako irakaslea zen Kabulén, eta Zohra Jan ahizparekin

batera ihes egin zuen, duela ia bi urte. “Enbaxadetako langileek baino ez zuten lortu hegazkinen bat hartzea –argitu du azken horrek–, irudi haiek mundu osora zabaldu ziren –eta telebista-kateek bigarren urteurrenerako berreskuratuko dituzte–, baina gehien-gehienok autoz edo oinez egin genuen mugara arteko distantzia”. Bide “gogorra” izan zen, eta itxaronaldi luzea, harik eta muga zeharkatu eta buruko 750 US dolar mando ordainduta 60 egunerako turista bisatua erostea lortu zuten arte. “Pakistango Barne Ministerioa, ustelkeriaz, gure etsipenarekin aberasten ari da”, salatu du. Esperientzia “oso bakartia” izaten ari dela gehitu du, Islamabaden ordezkari-tza diplomatikoa duten herrialdeetako presidente, lehen ministro eta kanpo arazoetarako ministroei idazten jardun direla, enbaxadetara deitu dutela asilo eskaera egiteko elkarrizketak lotu nahian, baina ez dutela erantzunik jaso. “Bisatua aspaldi iraungi zitzaigun, baina berritzeko Afganistanen enbaxadara



Mansoor Pakistanen jaio zen baina afganiarra da. Mugan erosten dituen burkak saltzen ditu Barako azokan. Erosle gehienak ere afganiarrak dira.



Afganistandik 50 kilometro eskasera, Peshawar da Pakistango hiri kontserbadoreena.



Saminaren seme-alabak, jurta moduko etxe barruan. Eskolaratu gabe, abeltzain-lanetan laguntzen dute txiki-txikitik.

edota Durand Lerrora (mugara) joan beharko genuke, eta arriskutsuegia da”.

### ERREFUXIATU ‘ZAHARRAK’

1893an Britainiar Raj-ak Abdul Rahman Khan *amir* edo errege afganiarrarekin negoziatu eta Durand Lerroa ezarri zuen, India iparraldearen gaineko kontrola indartzeko asmoz. Orduz geroztik, horixe izan da, *de facto*, Pakistan eta Afganistan arteko muga. Iparraldeko pashtun familiek eta Balutxistangoek ez diote, ordea, zilegitasunik aitortzen: mugaren bi aldeetan bizi diren tribuak banandu dituela salatzen dute, eta historikoki merkataritzarako edota abeltzaintzarako baliatu izan dituzten pasabideak itxi dituztela. Komunitate horien diru-iturriak ito dituztela diote baina,aldi berean, opioaren eta gizakien salerosketa elikatzen dituela mugak. Izan

ere, Pakistango Gobernua 1.100 kilometro luze den lubakia zulatzen hasi zen 2013an, “terroristen joan-etorriak” eteteke aitzakiapean eta AEBek lagunduta, eta honezkero %98 hesitu dute. Aldiz, urte hauetan guztietan, gobernu afganiar bakar batek ere ez du nazioarteko muga ofizialtzat onartu, ezta egungo talibanen erregimenak ere.

Edozein kasutan, 1979an, Durand Lerro hori bera izan zen Afganistandik Pakistanerako lehenengo migrazio uholde handiaren lekuko. Saurgo altxamendua ostean, Sobietar Batasunak (SESB) babestutako Afganistango Errepublikak Demokratikoaren eta AEBek armaz hornitu zituen mujahidinen arteko gerra piztu zenean, 400.000 afganiarrek egin zuten ihes Pakistanera eta, 1988an, SESB-en tropek atzera egin zutenerako, bost milioi ziren mugaren beste aldera

lekualdatutakoak, betiere UNHCR-k dabilen datuen arabera.

Gerra hartatik eta ondorengo gatazka zibiletatik Pakistanera ihes egin zuten afganiarrei UNHCR-k *prima facie* errekonozitu zien errefuxiatu estatusa. Baina, 1999tik aurrera, Musharrafen gobernu militarrek irizpidea zorroztu eta soilik mujahidin talde bateko kide zirela frogazaketen haiei aitortu zien halakorik.

Dena dela, 2006ra arte, errefuxiatuek ez zuten dokumentazio ofizialik edukitzeko obligaziorik izan; 2006-2007 urte bitartean gertatu baitzen lehendabiziko erregularizazio-saio handia: Gobernuak, UNHCR-ren laguntzaz, ia 1,4 milioi PoR agiri (Proof of Registration, erregistro ziurtagiria) igorri zituen. Lehenak eta azkenak.

Bigarren erregularizazio saioa 2017an izan zen, baina kasu horretan



Mugako Estatu eta Eskualdeen Ministerioarena (SAFRON) eta probintzia bakoitzeko Afganiar Errefuxiatuentzako Mandataritzena (CAR) izan zen ACC (Afghan Citizen Card) txartelak igortzeko eskumena. Urte luzez bertan bizi izandakoei eta haien ondorengoei aitortu zizkieten. Gaur egun, 840.000 lagunek dute.

Batzuk zein besteak 'errefuxiatu zaharrak' dira kaleko hizkeran, eta gehienak behinola kanpamentu izandako leku berean bizi dira; urteen poderioz herri bilakatu baitira. Peshawar hiriko Bara auzunea da horietako bat, bertako biztanleen %95 afganiarrak dira. Mugatik 50 kilometro eskasera dago, ipar-mendebaldean, eta Kabul ibaiaren hainbat kanalek zeharkatzen dute. Merkatua ia 24 orduz bizi da, zaratatsu; sonatua da barazki eta fruitu, arrain nahiz okel, artisautza zein txinatar produktuak erosten ahal direlako bertan. Mansoor Ullah-k burkak eta jilbab-ak (gorputz osoa estaltzen duten soinekoak) saltzen ditu: "Pakistanen soilik marroiak edo berdeak ekoizten dituzte. Zeru urdin kolorekoak afganiarrak dira, Durand Lerroan erosten ditut". Mendi arteko salerosketa puntutik ikusten duena besterik ez du ezagutzen herrialde horretaz, baina afganiarra da, Peshawarren jaio zen arren: "21 urte ditut eta ez naiz sekula han izan, baina afganiar hiritar txartela (ACC) eta afganiar pasaporteak dauzkat, nire gurasoek bezala".

Negozioa ez da Mansoor-ena, ordea. "Lan egin dezakete, baina ezin dute inolako jabetzarik eduki -zehaztu du HRCP erakundeko Fatima Atifek-; 'errefuxiatu zaharren' txartelek oso oinarritzko estaldura legala aitortzen diete-eta: eskola publikoetara eta osasun-etxeetara sarbidea dute, baina ezer ez da doan eta ez dute laguntza ekonomikorik". Hala ere, deportaziotik babestuta daude, "eta horrek -dio Mansoor-ek- lasai bizitzeko balio digu". Emakume pakistandar batekin batuz gero hiritar eskubide osoak bereganatuko litzukeela esaten du, "baina oso zaila da, ez dute gurekin ezkondu nahi".

Samina duela 35-40 urte iritsi zen Pakistanera, ez dauka garbi, hilabete gutxiko umea zen artean. Hilekoa lehenengoz jaitsi zitzaionean ezkondu zuten, "14-15 urterekin", eta gerora bost seme-alaba eduki ditu. Beste hainbat familiarekin batera, Harvichand izeneko inguruan bizi dira, jurta modukoe-tan, argindarrak eta urik gabe, Peshawar



Kabul ibaiaren kanal batek zeharkatzen du Bara auzunea.

“ ”

Batzuk, “zorionekoak”, Pakistanen dauzkaten senitartekoei esker aurrera egiten ari dira; beste familia batzuk partekatutako etxeetan pilotuta bizi dira, “eta besterik ez dutenek, eskean aritzen dira edo benefizentziak laguntzen ditu”

MOHAMMAD ZAMAN

war hiritik 20 bat kilometrora. “Niri ez atera argazkirik, senarra hor zehar dabil eta ez zaio gustatzen. Umeei bai, egiezu erretratua”, ohartarazi dit. Abeltzainak dira, ahuntzek eta bufaloek ematen dieten esnetik eta okeletik bizi dira. Barazki gutxi batzuk ere hazten dituzte eta, soberakinekin, azokara joa-

ten dira. “Oihalak brodatzen ditugunean, horiek ere saltzen ditugu –gehitu du–, baina soilik senarrak lagunduta mugitu gaitezke hemendik”. Beste diru-iturririk ez dute eta, ondorioz, ez dituzte haurrak eskolaratu: “Garestiegia da. Lur hauen jabeari ordaindu behar diogu hemen kanpatzearen truke, eta ez daukagu diru gehiago. Ospitalera soilik erditzera joan izan naiz –dio–, hori ere oso garestia da”.

Bere seme-alaben etorkizuna nolako irudikatzen duen galdetu eta isilik geratu da tarte batez. “Nik ez nituen hainbeste eduki nahi, baina ezin dugu erabaki”. Eta jarraitu du: “7-8 urte betetzen dituztenean, agian, etxalderen batean lanean hasiko dira mutikoak, baina ez daukagu dokumentaziorik... Bestela, etxean lagunduko dute. Senarrak gure alabak ezkonduko ditu eta...”. Ez dira gutxi, Saminaren antzera, inon erroldatu gabe eta betikotu den linbo legalean bizi diren afganiar iheslari ‘zaharrak’. Halako 775.000 daude Pakistanen, UNHCR-ren estimazioen arabera; bi milioitik gora izan litezke, SHARP-en aburuz. ●

GABRIELLE DUPLANTIER  
ARGAZKILARIA

# “Argazkiekin ez nabil errealitatea harrapatzeko bilaketa batean”



Gabrielle Duplantier argazkilariarekin elkartu gara Baionan, Aturri bazterreko terraza batean. Esku artean erakusketarik ala liburu berririk ez duela, elkarrizketa zertaz izango den galdetu dio kazetariari, zehaztuz gainera argazki guti egiten duen bizi fase batean dela. Espazio “huts” horretaz baliatu gara soa zabaltzeko eta luze eta zabal aritzeko bere sorkuntzaz. 45 urte dituen artistak ibilbide luzea duelako argazkilaritzan. Eta ohargabeen lortu du leku bat egiten mundu horretan: “Oraindik ez dut ulertzen nola heldu naizen honaino. Guztia bat zetorren ondorioztatzeko ez nuela lortuko”. Bideaz eta biziaz hitz egin dugu.

## JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

### **Zure argazkiak nola deskribatuko zenituzke ezagutzen ez dituen irakurleari?**

Nola deskribatuko nituzke... Gehienak zuri-beltzean diren argazkiak dira; kolorearekin ere lan egin dut, baina zuri-beltzari dedikatu natzaio, irudimenari dagokionez anitzez gehiago betetzen nauelako, eta materiari begira ere, pertsonalki, biziki interesgarria zaidalako. Kutsu femeninoa dutela erranen nuke, eta gure begiekin ikusten dugunetik doi bat aldaratuak dira. Ez nabil errealitatea harrapatzeko bilaketa batean, gehiago nabil sentsazioak eta irudimena harrapatu nahian. Nire argazkiek lotura gehiago dute irudimenarekin, ametsarekin, fantasmarekin.

### **Eta zure begirada? Zerk egiten du argazki-makina hartuko duzula ala kliskagailua sakatuko duzula?**

Aldakorra da, ez da legerik. Argazkilari-tzarekilako harremana aldatu zait denborarekin. Gustatzen zait hastapenez hitz egitea, puruagoa izanik interesgarriagoa delako. Zinez diot premia bat zela: aurpegiak sekulako jakin-mina pizten zidaten; bisaiek, begiradek, emozioek, begiratuak ez diren aurpegietan pasatzen diren zerekek... Natura ere beti izan zait inspirazio iturri biziki handia, hiria baino gehiago. Eta naturarekin batera natura alde batera ala bestera eramaten duen argia bera. Hastapenetan zeru kargatuek, ilunek, euritsuek erakartzen ninduten, orain izugarri gustuko ditut eguraldi ederrak, eguz-

kiak ondorioztaturiko itzalak... Funtsean eta galderari erantzuteko, dirdira bat agertzen denean: bat-batean begirada, burmuina eta bihotzaren arteko konexio bat daukagu eta dirdira horren laudatze bat da argazkia.

### **Begirada aldatu zaizu, zu zeu aldatu zarelako?**

Bistan da. Aldatzen gara, biziarekilako harremana aldatzen zaigu, espazioaren eta gorputzaren arteko harremana aldatzen zaigu, eta nola ez, argazkilaritzarekin dugun harremana ere aldatzen zaigu. Begirada zabaltzea eta beste ertz batzuk arakatzea interesgarria da argazkilaritzan. Ate berriak irekitzera behartzen dut neure burua. Hori diot, eta alta errepi-



katzen naizenaren irudikapena dut. Hor dira ere ikusi ditugun argazkiak, hunki gaituztenak: influentziak. Nahitara ez dut inoiz gehiegi begiratu besteen argazkiei. Baina badakit batzuk izan direla hastapenean, zinezko bultzada eman didatenak, bururatuko ez zitzaidan lekuetan egoteko gogoia piztu didatenak.

**Influentzia gehiegi ez, zurea zuretik eta zurean kausitzeko. Argazkilaritza eskola ere horregatik errefusatu zenuen.**

Argazki-eskola bat pagatu nahi izan zidaten, beti nintzelako argazki-makina esku artean, ez nuen besterik buruan. Ez nuen onartu, argazkiak eragindako poztasun purua eta askatasuna kenduko zizkidanaren beldur handia nuelako. Garaian arte fakultatean nintzela, biziki gustuko nuen pintatzea, baina zergatik hori eta zergatik hura, beti azalpenak eman edo entzun beharraren bortxaz erabat disgustua eragin zidaten.

**Argazki anitz hartzen dituen argazkilaria zara?**

Dependitzen du, baina bai, ikaragarriki egin ditzaket. Hala ere, erran neza ke lehen baino gutiago egiten ditudala, zehatzagoa izaten entseatzen naizela, analogikoan ari naizelako eta kliskagailua zapatzen dudana aldi oro 50 zentimo edo direlako airatzen [irria]. Arrazoi ekonomiko hori ere hor da, baina aitoritzen dut erabat ahanzten dudala transzenditzen nauen zerbaitekin parez pare kausituz gero.

**Transzendentsia.**

Ez dakit hitz zuzena den...

**Mantentzen dugu?**

Mantentzen dugu.

**Zerk zaitu, bisualki edo emozionalki, liluratzen? Liluragarri hori maiz kausitzen duzu?**

Garai hauetan ez sobera! [Irria]. Fun-tsean, ez nabil argazki anitz egiten, justuki liluragarria atzemateko zailtasunak ditudalako. Horregatik, noiztenka banao, urruti, liluragarri hori leku ezezagunetan atzeman nahian. Hala ere, oraindik atzeman ditzaket nire egunerokoan liluratzen nauten gauza ttipiak. Nagusiki jendeetan kausitzen ditut, edo argian. Haurrek ere liluratzen naute, duten askatasunak, ezaxolakeriak, dakartenari buruz duten kontzientzia-ezak. Hunkitzen nau beren bizitasunak. Maiz besteen begiradaz futitzen



Gabrielle Duplantier, elkarrizketatua. Autoerreturatua.

GABRIELLE DUPLANTIER

**“Bat-batean begirada, burmuina eta bihotzaren arteko konexio bat daukagu eta dirdira horren laudatze bat da argazkia”**



diren izaki ttipiak dira, biziarekiko lotura osoa dutenak eta inspiragarri zaizkit.

**Bakardade giroa ere sentitzen da zure argazkietan, bakardadearen alde baregarria.**

Baliteke. Ez da kontzientea edo bilatua, baina egia da, nire subjektuak bakartzeko beharra sentitzen dudala. Gustatzen zait arreta entitate bakarrean jartzea, energien biderkatzea saihesten entseatzen naiz. Horregatik bakardadeari oihartzun egiten diote nire argazkiek. Dena dela, ni ere biziki bakartia izanik, pentsatzen dut zeozer adierazten duela.

**Laborategiko lana gustuko duzu?**

Biziki gustuko dut. Denborarekin aldatuz joan da hori ere. Hastapenetan, dena laborategian egiten nuen, orain negatiboak numerizatzen ditut eta laborategian egoten naiz, baina modu hutsalagoan. Arrazoi ekonomiko eta materialengatik, baita denboraren parametrogatik ere. Baina bai, laborategiko momentua biziki azka-

rra da: musika gora-gora jarri eta nirea den denbora-espazio batean kausitzen naiz, argazkiarekin fusioan naiz, erabat kontzentratu, oso berezia den zerbait atzeman nahian. Biziki azkarra da.

**Potretak dira zure argazki anitz. Denboran segitzen dituzu pertsona horiek?**

Bai. Berez ez da proiektu bat edo aitzinetik prestatua den zerbait, baina bai, pertsona batzuk aspalditik hartzen ditut argazkitan. Nahiko magikoa iduritzen zait gainera.

**Haurtzaroak eragina badu garen horretan. Landetako oihan batean iragan duzu zurea, guraso artistez inguraturik, bi anaien ondoan.**

Haurtzaroko etxean berriz kokatzen nabil orain. Saiatzen naiz betidanik okupaturiko espazio horiek gaurko begiradatik begiratzen, gaurkoak balio balu bezala, eta ez atzokoak. Hor ez dizut erantzuten galderari, lekuaz ari natzaizu. Zer oroitzen duan? Guraso askeak, herriko besteen izaeratik arrasurrun zirenak. Aita marrazkilaria zen, langile amorratua, mundu fantasmatikoko biziki aberatsa zuena, baina ez zena mintzo. Ama, berriz, beti mintzo zen, biziki espiritualala zen. Ohiz kanpokoak ziren, eta modu biziki askean hezi gintuzten. Horrek ez du erran nahi artista izateko gogoia hauspotu zigutenik. Hirurak bide artistikoari lotzen ginela ikustearekin "ez hori egin!" erran zigun aitak. Marrazkilaria izanik eraman zuen familia aitzina eta bazekien zertaz ari zen. Diruz, ez ginen aberats, baina aberastasan anitz bazen familia horretan. Halere, bidea ez zigun moztu, baina argi utzi ziguten konplikatu izanen zela, lan anitz suposatuko zuela. Egia da: urteak eman ditut, ez da erraza izan, nekagarria izan da, baina azkenean, merezi izan du.

**Gaur egun bada argazkilaritzan ezaguna den izena Gabrielle Duplantierrena.**

Bai, eta oraindik zailtasunak ditut sinesteko! Argazkilaritzan norbait bihurtu naiz horren anbiziorik ukan gabe. Argazkiak egin ditut, behar hori nuelako. Inoiz ez diot egiteari utzi, eta alta ez zen irabazia, behin baino gehiagotan kikildu nahi izan nautelako. Guztia bat zetorren ondorioztatzeko ez nuela lortuko. Ez nuen estrategiarik, itsuki aitzinatu naiz, luzaturiko eskuei lotu



GABRIELLE DUPLANTIER

natziaie, irekitzen zizkidaten bideak hartu ditut, poliki-poliki egin da, honaino heldu arte. Ez naiz oportunistak izan, eta ez zait hitz egokia iduritzen, baina hori, herabea naiz. Gaur egun oraino ez zait erraza. *Workshop* bat eskaini beharko dut laster Italian, eta banabil pentsaketa zer duan transmititzeko. Oraindik ez dut ulertzen nola heldu naizen honaino. Baina, biziki kontent naiz. Eta harro.

**Urte guzti horietako artxiboak nola dituzu?**

Guztia ez da interesgarria, hiru laurdenak ez dira batere interesgarriak. Argazki batzuk ez dakit zergatik egin ditudan. Azkenean balio didate argitzeko zerk ez didan balio. Orain intuizio batzuk di-

tut huts egindako argazki horiei esker [irria]. Baina oraindik tronpatzen naiz, ateratzea pentsatzen ez nuen argazkia izan daiteke ona. Oraindik harritzen nau argazkilaritzak, eta eskerrak.

**Nola sailkatuak dituzu?**

Kronologikoki, eta bakar batzuk gaika, demagun, bidaia berezi batzuk. Baina, gaizki zaintzen ditut, apal batean ditut, ez ditut babestuak... Normalean, kutxa gotor batean egon beharko lirakeke, suaz babesteko edo.

**Hori nuen gogoan.**

Bai nik ere gogoan dut. Baina zer egin behar dut? [irria] Sute bat baldin bada... *Agur Ben Hur.*

### Begiratzan dituzu noiztenka?

Batzuetan esplorazio berri batean sartzen naiz, begiratzeko ez ote naizen zer-baiten ondotik pasa. Batzuetan eman-korra da, besteetan ez. Gertatu daiteke zeozer eraldaturik duen argazki bat kausitzea. Sekulakoa da gertatzen denean, beraz balio du. Begirada aldatzen den heinean, atzerapenarekin begiratu beharra diegu irudiei, begirada berri horrekin begiratzeko. Bukaezina da. Ia jasanezina [irria].

### Azken liburua 2018an argitaratu zenuen, *Terres Basses* izena jarrita.

*Volta* ondoren lau urte pasa zirela plazaratu genuen *Terres Basses*. Editorearekin beste bat lantzen gabiltza, 2024 urterako. Badu bi urte nahi duela, baina denbora gehiagoren beharra nuen nik. Orain prest nago, zeozer proposatu dezaket. Baina irudi anitz-anitz ditut, oraindik ez dut argi.

### Nola eramaten duzu liburua sortzeko prozesua?

Oinarrian argazkiak ditut. Egunerokoa ateratzen ditut, inolako aurreikuspenik gabe. Ondotik guztiak elkartu eta zeozer azaleratzen da: ipuin bat. Editorearekin kolaboratzen dut, ikusten duena azaltzen uzten diot. *Volta*-rekin ez, baina *Terres Basses*-ekin berak kausitu zuen irudiek kontatzen zutena. 2018az geroztik argazkiak metatzen nabil. Gai berak izanda ere, editoreak dio zeozer berri dagoela: argi berri bat, iraganean ez zegoen lasaitasun bat... Titularra atzeman nahian nabil. Hainbat proposatu dizkiot editoreari baina errefusatu dizkit. Uste dut proposamen berri dudala, baina ez nago oraindik erabat segur. Testu bat ezarri ala ez, horrekin gabiltza ere. Berak nahi du, nik ez dut ariketa gogoko, baina agian neure burua bortxatu eta egingo dut. Ageriko da.

### Ikusten duen aldaketa ikusten duzu?

Ez nuen ikusia, baina erran eta sinesten dut. Pertsonalki ezagutzen gara, elkar segitzen gara bizian, eta ikusten duke bizia baretu zaidala. Eta egia da: argazkietan ageri da.

### Ama hil zitzaizun. Dolua egiten zebiltzala argira ateratako liburua da *Terres Basses*.

Bai. Heriotza bortitza ukan zuen, nolazpait infernua zeharkatu zuen. Nire amaz biziki-biziki-biziki hurbil nintzen. Nire gida espirituala zen, nire laguna, nire

ama, nire binomia, nire ahizpa. Guztia batera. Pertsonak bideratzeko gaitasun handia zuen, norbanakoon dudak, galderak eta sufrimenduak ulertzen zituen. Amarekin hitz egin eta indartsu eta irrifartsu banindoan nirera. Bere heriotza eta gero, nire existentziari begira jarri nintzaion, eta desastrea izan zen: bikotekidea utzi nuen, bi lagun minekin haserretu nintzen, traizionatu ninduen beste tipo batekin jarri nintzen, ustez eta zeruak bidalitakoa zela..! Pentsa emazu, nire liburuan ere da traidore hori! [irria] Hots, zurrumbilo sakon batean nintzen. *Terres Basses* liburuak berriz errotzen lagundu ninduen: David [Fourré] editorearekin izandako harremana, ateratako argazkien bidez biziari, besteei baita zorionari ere berriz konektatu izana. Non-bait argazkiek frogatu zidaten beti bizirik nintzela, desioa ez zitzaidala desagertu. Editoreak liburu bat plazaratzeko mamia ikusi izanak konfiantza eman zidan, baita poza ere. Ikusiz, nire argazkiak nire biziari lotuak direla, garai horretako argazkiak gertakizun horri eta ondorioztaturiko bizi berriari lotuak dira.

**“Argazki-eskola egitea ez nuen onartu, argazkiak eragindako poztasun purua eta askatasuna kenduko zizkidanaren beldur handia nuelako”**



### Eritasunak eramane zuen zure ama?

Bai, eritasun ikaragarri batek.

### Desagertuz zihoan gorputz hori argazkitan hartu zenuen?

Ez. Ez, hori ezin dut. Argazkiari dagokionez, muga anitz ditut. Ez dut gogorik (...)

...

Ez. Nire argazkiak gogorapenak dira, ez dira testigantzak.

### Zuk *Terres Basses* liburu, anaiek *Low Lands* abestia. Guztia amaren joate horretatik sortua.

Biziki hurbila dudane aitaren kusi Alain Duplantierrekin batera sortu dugu *Low Lands* abestiaren klipa. Amari dedikatu-

riko omenaldia da. Abestiaren izenburua frantsesera itzuli eta liburuari jarri nion, hain zaidalako formula justua iduritzen: *Terres Basses* [lur baxuak]. Kliparen grabaketan zehar harturiko irudi batzuk badira liburuan. Nolazpait eskuz esku doaz bi sorkuntzak.

### Gojira [bere bi anaieen musika taldea, mundu mailan ezaguna] aipatzen bukatzen duzu. Elkarrizketetan maiz zureaz hitz egiten hasi eta anaieen edo aitaren sorkuntzaz hitz egiten bukatzen duzu. Pisua zaizu?

Nola izango zait pisua? Nire anaieen biziki hurbila naiz, haietaz biziki harro naiz. Gojira hastapenetik segitu dut, klipetan parte hartu dut, argazkitan atera ditut, istorio hori nire abentura ere da pixka bat. Aldi berean, egia da lotuak izanda ere, bakoitzak dugula gure bidea, gure nortasuna, gure sorkuntza eta bereizte hori inportantea dela.

### Zure argazkien istorioak kausitu ditzakegu liburu batzuen azaletan, Eider Rodriguez-en *Un corazón demasiado grande* obran adibidez. Gustuko duzu topaketa hori?

Bai! Ez dira kolaborazioak, baina egia da aldi oro anitz hunkitzen nautela. Arras gustuko dut nire argazkien erabilpen hori. Aspaldian dut liburuaren azalean egoteko suertea eta aldi oro harrotasun handi bat da. Gustatzen zait pentsatzea nire argazkiek norbaiten irudimena sintetizatzeke gaitasuna izan dezaketela.

### Bukatzeko... liburuaz gain zer opa diezazukegu?

Nire etxearen eraikuntzarekin bukatzea? Ez hori ezin da erran [irria]. Ez dakit. Zer opa diezadakezue? Uros izatea, egun oro alaitasun pixka bat topatzea, eta desira bistatik ez galtzea. ●

**MARCOS**  
*okindegia*

**Benetako  
antzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)

## Mari Luz Esteban Iraultza Txikien akanpadan

# “Berdintasuna emakume zaharren gorputzetan ari da jokatzeko”

Mari Luz Esteban antropologo eta irakasleak hitzaldia eman zuen Izarran uztailaren 20an, Iraultza Txikien Akanpadan. *Zahartzaroa eta gorputza* zuen izenburua hitzaldiak, baina hasi berritan proposatu zigun beste bat: *Berdintasuna emakume zaharren gorputzetan ari da jokatzeko*. Adineko emakumeak bizitzaren hainbat esparrutan bizi dituen egoerak jaso zituen.

 JON HIDALGO GEREÑU

**E**stebanek idatzitako *Andrezahararren manifestua* liburuko pasarte batekin hasi zuen hitzaldia, esan nahi zuena ondo laburbiltzen zuelakoan: “(...) Uzkurtuz doan gorputz hau, politika, ekonomia, boterea eztabaibatzen dituen materia da, ekintzarako tresna eraginkorrena”.

Antropologoaren hitzetan, adineko emakumeak ez daude ikusgai, ez diegu erreparatzen, eta berariazko bortizkeria asko jasaten dute, zahar-etxeetan kasu. Hala ere, alde onei ere erreparatu nahi izan zien, adineko emakumeen gorputzak agente moduan hartu eta hortik iraultza egiteko edo berdintasunerako bidean jartzeko. Zenbait arlo aipatu zituen, osasuna, gorputz irudia eta sexualitatea, esaterako.

### **GORPUTZ OSASUNTUA, ONDOEZAK DITUENA**

Osasunaren esparrua aztertzean, alde onak eta txarrak mahai gaineratu zituen.

Hasieran aipatu zituen zahartzaroan emakumeek dauzkaten berariazko osasun arazoak, eta nolakoa den emakume zaharrei eskaini ohi zaien osasun arreta. Salatu zuen medikuen aldetik jasaten duten adinkeria. “Borondate oneko medikuak izanda ere, adin batetik aurrera, edozein arazorekin joanda, jasoko duzun erantzuna izango da: zure adinarekin normala da”.

Aitortzarik gabeko zaintzaileak dira emakumeak, Estebanek esan zuenez. Edozein adinetan, baina baita zahartzaroan ere. Adineko emakumeekin hitz eginda, kontatzen omen diote hasieran pasioz izan zirela zaintzaile, baina adin batetik aurrera anibalentzia handia daukatela. Lagundu diezaiekete seme-alabei haurren zaintzarekin, baina non dago muga? “Oraindik gurasoak edo amaginarreba zaintzen ari naiz, eta orain bilobak zaindu beharra... noiz amaitzen da zaintza? Ez da inoiz amaitzen emakumeen bizitzan”.

Zahar-etxeen eta ospitalen egoeran ere jarri zuen begirada antropologoak. Nabarmendu zuen han zer harreman mota izaten diren adineko gorputzekin. Ez zituen ahaztu langileen lan baldintzen inguruko salaketak, profesionalen egoera oso kaxkarra dela gogorarazi zuen, greba ugariak horren erakusle. Baina kritikatu egin zituen zahar-etxeetan adinekoei ezartzen zaizkien erregimena eta diziplina, eta ohartarazi zuen horretaz ez dugula asko hitz egiten. Zaintzak erdigunean jarriko dituen greba orokorraren harira, hausnarketarako deia egin zuen.

Zahartzaroa trantsizio fase gisa azaldu zuen Estebanek, eta *Andrezahararren Manifestua* liburuko beste pasarte bat ekarri zigun: “Lehenago aise egiten nituen gauzak, nekezagoak dira orain. (...) Autobusa, tren, metroa, badoaz nire begi aurrean. Ilea urdindu zait, begiak lausotu, belarriak gortu. Baina etorkizuna ikusteko eta entzuteko gaitasun

aparta dut. (...) Grabitate indarrak inoiz baino indartsuago jotzen dit. Baina bizitasunaren eta higaduraren lehian, atso-tasuna aldarri.”

### ALDE ONAK ERE BADITU

Aldaketa asko egonagatik ere denak ez direla txarrak, hala argudiatu zuen antropologoak. Eta ariketa bat proposatu zigun bertaratu gineno: “Zein dira onerako diren aldaketak? Fisikoak barne”. Inork ez zuen erantzun. Aipatu zituen batzuk Estebanek berak, gorputza berreskuratu duela, adibidez. Lehen ez zela berea, beti faltak ateratzen, beti heldu ezinda, eta orain berreskuratu egin duela. Sosegua, patxada, moteltasuna, oso “atsegingarriak” direla esan zuen. “Ez zara autobusera iritsiko, jada ezin duzu korrika egin. Ba beno... bizitza hartzeko beste modu bat da”. Zahartzaroa azken fasetzat hartu beharrean, esan zuen garrantzitsua dela beste fase bat bezala hartzea: “Ezin imajinatu gauza hauek guztiak egingo nituzkeenik”.

Heriotzaz hitz egin beharra ere aipatu zuen hitzaldian. Azaldu zuen hutsune bat dagoela, pentsatu beharra dagoela zer ekarpen egin diezaiokeen feminismoak heriotza ulertzeko moduari. “Zer da heriotza ona feminista batentzat? Noiz hil, nola hil... Nire azken ekintza izan daiteke heriotza duina, utz dezakedan testamentu onena, ondo bizitzeaz gain ondo hiltzea, garaiz hiltzea”.

### GORPUTZ IRUDIA

Antropologoak argudiatu zuen bizi-garen gizartean gaztetasuna eta edertasuna direla arau eta helburu. “Nola ez gara gaizki egongo?”. Edertasun eredu normatiboa salatu zuen, eta horien barruan adineko pertsonak daukaten presentzia falta. “Zaharren gorputzak ez ditugu ikusten”. Erreferente faltaz ohartarazi zuen, eta aipatu zizkigun bere erreferente diren adineko emakume batzuk, tartean Louise Bourgeois, Esther Ferrer edo Rita Levi-Montalcini.

*Good luck to you, Leo Grande* (“Zorte on, Leo Grande”) filmaren harira, Emma Thompson aktoreak aurkeztutako ariketa bat proposatu zigun feministak. “Dutxatik irtetea, biluzik oraindik, begiratu zuen gorputza eta esan, ‘hau ni naiz’”. Egon luze begira. Ez sartu tripa, ez ezkutatatu. Eta deseroso bazaudete, jarraitu”. Esan zigun berari ere kostatzen zaiola, baina defendatu zuen ariketa iraultzai-



*“Dutxatik irtetea,  
biluzik oraindik,  
begiratu zuen  
gorputza eta esan,  
‘hau ni naiz’”*

lea iruditzen zaiola gaur egun gorputz irudiaren inguruan hausnartzeko.

### EROTISMOA ETA SEXUALITATEA

Narratiba hegemonikoaren arabera “sexualitatearen gainbehera” gertatzen da beti zahartzean. Kontrara, azaldu zuen emakumeekin hitz eginda ikusi due-

la errealitatea askotarikoa dela, beste adinetan bezala. “Egon daiteke jendea harremanak dituen, ez dituen, harreman berriekin hasten dena... Adibidez, heterosexualak izan direnak eta hasten direnak emakume batekin harremanak izaten”. Puritanismoa nagusi dela esan zuen, “baita feministon artean ere”. Sexualitatea ez omen da soilik genitala. “Hori badakigu denok, baina zenbat aplikatzen dugu?”.

Zahartzaroko sexualitateaz aritzean bide-orri argirik ez dagoela aipatu zuen, baina bizpahiru ideia bota zituen hausnarketarako. Topikoetatik harago joan beharra aldarrikatu zuen, zahartzaroak dakartzan gauza positiboetan ere pentsa, eta zaharren gorputzak modu interseksionalean aztertzea. Horretarako adinaz eta generoaz gain, jatorriaz, klase sozialaz, sexu orientazioaz eta abarrez hitz egin behar da, beste faktore askok eragiten dutelako bizitzan. ●

# ERLEEN GALERAREN PARTE ETA EZ APARTE



**BALERDIPEKO ERLEAK**  
MATTIN JAUREGI ETA  
INAXIO ARIN

**E**rleak, polinizazioa... Behin eta berriz azpimarratu behar da zein garrantzitsua den erlearen lana, landareen ernalketa. Lan horretan eragotzen diona gizakia da, gizakiak jartzen dizkio zailtasunak eta gizakiak akabatzen du erlea: erlearen lana zuzenki ikusten ez dugun bezala egiten ditugu zuzenki ikusten ez ditugun kalteak.

Liztor beltza (*Vespa velutina nigrithorax*) ez zen kasualitatez etorri, ez da gai Asia iparraldetik Frantziara hegan joateko, gizakiak ekarri zuen 2004. urtean. Egungo materialen esportazioak ez ditu produktuak bakarrik esportatzen, tartean intentzionalki ekarri nahi ez diren espezie inbaditzaileak ere esportatzen ditu; horrela iritsi zen liztor beltza Frantziara egurrez kargatuta zegoen itsasontzi batean... Gaur egun liztor beltza da erlearen etsairik handienetakoa.

Liztorrak oso hazkunde azkarra du, urtean 200-400 erregina berri ateratzera iritsi daiteke.

Liztorrek bi apitan egiten dute bizitza, udaberri hasieran hazkunderako erabiltzen dituzten api txikietan eta on-



Liztor asiarra

doren bigarren apia deitzen zaionetan: azken hori izaten da api nagusia.

Liztorraren elikagaietako bat da erlea, hori da liztorra erlearen etsai dela esateko arrazoia. Liztor batek egunean 3-4 erle akabatzen ditu elikatzeko, 200 liztorreko api batek 4.000 erletik gora asteen. Liztorrak erleak ehizatzen erlauntzen aurrean jartzen dira hegan eta erlea erlauntzatik atera arte itxaroten dute: erlea atera bezain laster harrapatzen dute.

Erle batek egunean 1.000 lore inguru ernaltzen ditu, beraz, atera kontuak liz-

torraren ondorioz zenbat lore geratzen diren ernaldu gabe.

Tranpatze bidez saia gaitzke liztorraren hazkundera gorantz jarrai ez dezan, tranpatzeek erregin kopurua jaisten dutelako eta horrek inguruan apiak guxtiagotzen dituelako.

Hau ez da erleen arazoa soilik eta ezta erlezainena ere, arazoa denona da.

Liztorra ekarri genuen, baina ezin dugu berriz bere lurraldera bidali: erleak harrapatzen jarraituko du, erlerik gabe geratu arte. ●

UZTAILAK 29 ZIGOITIA	IRAILAK 9 ERRENTERIA	IRAILAK 30 ARETXABALETA	<h2>UDAKO AZOKA EKOLOGIKOAK</h2>
ABUZTUAK 18 ZARAUTZ	IRAILAK 9 ALGORTA	URRIAK 7 GASTEIZ	
ABUZTUAK 25 ZUMAIA	IRAILAK 17 ZERAIN	URRIAK 8 EIBAR	
IRAILAK 2 DONOSTIA	IRAILAK 30 MUNGIA	URRIAK 8 DURANGO	
		URRIAK 22 LEINTZ-GATZAGA	

# MILAKA URTEDUN KONTZEPTU BERRIA, BASO JANGARRIA



IÑIGO ARRUABARRENA



Keralako basoa

**M**unduko herri guztietan ematen dira lekuko klima eta kulturari lotutako ekosistema agroforestalak. Ez bakarrik haien konstantzia marraztu edo idatzia dugulako, baizik eta bizirik dirautelako gaur egun, kasu batzuetan, milaka urteren ondoren. Biziraute horrek ekoizpen mota horren erresilientzia eta sostengarritasuna frogatzen dituzte eta klima aldaketarako tresna boteretsu bilakatu.

Eraldatutako ekosistema natural hauen adibide ezagunenak klima tropikaletan ematen dira. India hegoaldean adibidez kulturaren parte dira estratu anitzeko baso jangarriak. Keralako probintzian nahastuta landatzen dituzte kokondoak goi mailan, bainila eta piperbeltza zurtoinetik gora korapilatuta, bertako fruta-arbolak beheraxeago, kafe eta kakaoa zuhaixka horien itzaletan, bananak, kardamomoa eta piñak lurzorutik gertu, kurkuma eta jengibrearen lurraspian... imajinatu baso horretan ibilaldia, ederra!

Tropikoetan bezalaxe klima lehorretan ere erabiltzen jarraitzen dituzte gaur egun baso jangarriak, Marokoko Atlas mendikatean, adibidez. Paisaia idor ho-

rietan erreka lehorren inguruan erakitzen dituzte basoak, lurrazpiko urak aprobetxatu ahal izateko. Gerizpea sortu eta lurrunketa murrizteko asmotan datil palmerak landatzen dituzte lehenik. Horien azpian fruta-arbola espezie ugari daude: laranjaondo, granadondo, pikondo, olibondoak... eta horien guztien artean nahasita mahatsondoak, libreki haziz. Zuhaitzen arteko hutsuneetan artoa, garia eta beste labore batzuk ereiten dituzte. Behin uzta jasota, labore arrastoa aprobetxatzeko eta belarraren hazkuntza kontrolatzeko, asto, ahuntz eta ardiak bazkatzen dituzte. Horrela bada, aniztasun gutxiko inguruneak diruditen lekuetan ere badago paradisuak sortzeko aukera.

Aipatutako bi adibide horiez gain, mundu guztian barreiatuta daude antzeko agroekosistema naturalak: Chinampak Mexikon, Quesungual Hondurasen, subak sistemak Balin, milpa landaketak Ertamerika guztian zehar, dehesa sistemak Espainiako Estatuan...

Gurean ere badugu naturaren gestio mota honen ezagutza. Baserri inguruetan betidanik landatu izan dira fruta-arbola ezberdinak elkarkidetzan:

sagarrondo, makatzondo, pikondo, okan, mahatsondo...

Horien mugetan sendabelarrak izaten ziren askotan eta zuhaitzpeetako bedarra aprobetxatzeko animalia mota ugari bazkan. Izen modernorik gabe, gure arbasoen senetik jaiotzen zen ekosistema ingurune hauek sortzeko beharra, energia gutxi txertatuta jaki anitzak eskaintzen zituena.

Gure klimaren ezaugarriek baso irekiak diseinatzera behartzen gaituzte, zabaltasun horrek argia sartzen utzi eta umeltasuna murriztu ditzan. Horrela, ekoizpena areagotu, fruituak heltzen lagundu eta umeltasun maila altuak sorturiko gaitz arazoak kontrolatzen dira.

Nahiz eta milaka urte dituen jakintzaz ari, garai modernoek izena ez ezik beste hobekuntza batzuk ere ekarri dituzte. Gaur egun mundu osoko espezie eta bariatateak landatzeko aukera dugu, baita atzerriko teknika ezberdinak erabiltzeko ere. Horrez gain, teknologiak ingurunearen ezagutza sakonagoa eskaini eta berari moldatutako sistemak diseinatzeko tresnak eskaintzen dizkigu. Horregatik, milaka urte dituen kontzeptu berri batez ari gara: baso jangarria. ●

# JAN FRUITUTIK, ETIKETARIK GABEKOTIK



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



Fruta bakoitzari etiketatxoa jarri zion enpresa berak orain biodegradatzen diren etiketak jartzeari ekin dio.

**P**iperra, sagarra, tomatea, udarea, ahuakatea, paraguaioa, alberjina, arana, kuitxoa, albertxikoa, kuia, angurria, mertxika, leka, marrubia, luzokerra, nektarina, babarrun zuri berria, pikua, meloia, mahatsa... Urte sasoi honetan bada jateko moduko fruitutik. Urte guztiko bertoko fruitu sasoi gorenena da. Urrutirago begiratuta baita banana, anana, mangoa, marakuia eta abar oso luze bat jatekoa ere; gero eta urrunagotik dakartzagu gero eta ezezagunagoak ditugun fruituak.

Era berean, bertokoak baina ustez bere sasoi denetik kanpo, gero eta fruitu gehiago ezagutzen ari gara. Irratian esan berri didate abuztuaren erdi aldera jaten ari zirela ekainaren hasieran ereindako ilarrak. Ilar berriak! Irailean jango dituzte uztailen erein zituztenek eta, esan nuen, oraintxe ereinez gero urte amaierako solstizioaren bueltan jango dituzu, dena ondo bidean, abuztuaren amaiera-irailaren hasiera ho-

netan ereindakoen fruituak. Orduan erantsi nuen: laster ilar berria urte osoz izango dugu, bertakoa! Ez dago urruti urte hori.

Ilarra, leka eta babarruna fruituak dira, noski, baina lekak. Gainontzeko fruitu guztiek, ia denek, ezaugarri berezi bat dute: etiketatxoa. Ez da urte asko fruitu ale bakoitza bere etiketatxoarekin ikusten hasi garela. Hogeita hamarren bat urte da Ingalaterrako Norwichen Sinclair enpresa sortu zela. Ordura arte, fruituen identitate eta definizio guztia, hitz batean marka kaxan zegoen, nahiz kartoizkoa nahiz zurezkoa izan. Hortik abiatuta fruitu eta zenbait barazkiri "merezi duten marka" ematea pentsatu zuten. Baita egin ere, eta horretarako sistema automatikoak asmatu zituzten, segundoko dozena bat fruitu ale etiketatzeko gaitasuna duten gailuak... Geroztik mundu osora zabaldu dira, eta orain zaila dena da etiketatxorik gabeko fruituak topatzea.

Etiketa horiek ere badute, ordea, ipurdian zuloa. Plastikozkoak dira eta luartokira edo simaurretara botaz gero ez dira usteltzen edo desegiten, eta gero luar hori baratzean banatutakoan horra etiketa itsusi hori letxugaren edo piperraren azpian... Gogaikarria da etiketa txatxu horiek ikustea lantzen duzun lurrean. Lagun bat badut ernegatu eta amorratzen dena, eta bere irtenbidea topatu du: fruitu guztiei etxera sartu orduko etiketak kendu, denei.

Enpresa hori ez da, ordea, berdantzart jaioa, eta beste urrats bat egin du: etxeko luartoki txikienean ere usteldu eta desegingo den etiketa. Ez du plastikozko arrastorik, eta etiketaren oinarria material biologikoa da. Hortik gehienez ere urtebeteko epean biodegradatzen dela diote. Ea bada laster ditugun fruitu aleetan, gure luarraren eta lurraren onerako. Hala ere, etiketarik gabeko fruituak onenak! Bertoko ekoizle txikiak. ●



## AHUNTZ PIRENAIKA

# “LANDA-ABEREA DA PIRENAIKA, ESTENTSIBOARI LOTUA ETA KANPOAN BIZITZEKO EGINA”



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**D**uela lau urte, Ipar Euskal Herriko zenbait ahuntz hazle elkartu eta Ahuntz Pirenaika elkartearen sortu zuten, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen laguntzarekin: “Pirenaika arrazako ahuntzen hazleak ginen denak, eta instalazio proiektu bat esku artean dutenei arraza hau ezagutaraztea eta honetaz bizi daitekeela erakustea zen asmoa”, azaldu du Joana Parot elkarteko kideak. 1980ko hamarkadan desagertzeko arriskuan egon zen bertako arraza hau, baina abeltzain gutxi batzuei esker bizirautea lortu zuen, eta taldearen lanarekin, orain, pixkanaka berreskuratzen ari da. Elkartea sortu zenean gutxiago ziren, baina gaur, jadanik, hamabi hazle ari dira elkarlanean.

### HARAGITARAKO EDO ESNEKITARAKO

Eredu estentsiboari guztiz lotua dagoen arraza da pirenaika. “Ez da barruan atxikitzen ahal, kanpoan bizi da beti, eta gehienak mendira joaten dira taldeetan”, Parotek azaldu duenez. Beste arraza batzuek esfortzu txikiagoa eskatuko dute maneiu aldetik, denbora tarte batez ukuiluan bertan hazteko aukera ematen dutelako, eta pentsa liteke, agian, horregatik hasi zela pixkanaka galtzen arraza: “Zorionez, zenbait hazle hasi ziren borrokan Pirenaika ezagutarazteko eta bergizarteratzeko, eta orain, geroz eta instalazio proiektu gehiagotan itzuli dira arraza honekin lan egitera”.



Pirenaika ahuntzak bi helbururekin hazten dituzte abeltzainek: badira, alde batetik, gasna egiteko darabiltzatenak, eta bestetik, haragitarako hazten dituztenak. “Pitika edo antxume haragia ezagutaraztea ere bada elkarlearen asmoa, eta horretarako sukaldariekin ari gara lanean. Orain arte denek pentsatzen zuten haragi kaskarra zela, gizen askokoa... eta ez da batere hala”, Parotek hitzetan. Jatetxeetako sukaldariekin ari dira lanean duela zenbait urtetik, uste oker horri buelta emateko saiakeran.

### AHUNTZ PIRENAIKAREN FESTA

Iaz, lehenengoz, Pirenaika arrazaren festa berezia antolatu zuen elkarleak Donibane Lohitzunen. Bertan, hamabi sukaldarik pitika bat sukaldatu zuten,

bakoitzak zati bat, errezeta desberdina proposatuta. “Ulertarazi nahi genion jendeari ez direla zati nobleak bakarrik jaten, dena aprobetxatzen ahal dela, prestatzeko modu desberdinak erabiliz”.

Elkarleak urteotan egindako lana ari da pixkanaka bere fruituak ematen, nahiz eta oraindik argi duten luzea izan dela bidea, “ahuntzarekiko oraindik ez baita hainbeste interesik. Gasnarendako bai, baina nondik datorren, zer arrazatatik eta hori guztia... zaila da”, gehitu du. Martxan daude, behintzat, eta komunikazio alorra sakontzea du elkarleak orain helburu nagusi. Euskal Herriko Laborantza Ganbararen laguntzarekin ari dira buru-belarri horretan ere. ●

# Teoria jakitea ondo dago, baina praktikan jarri

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Zikindu beharreko liburuak dira hauek”, diosku Garbiñe Larrea Iturraldek. Hor jartzen dituenak praktikan jartzen diren seinale da liburuak olio-, belar- edo lur-markak edukitzea. Hori da bai *Sendabelarre* dakitena eta bai *Sendabelar baratzea* liburuen lehen helburua: praktika. Baita herriz herri Euskal Herri osoan zehar eskaintzen ari den hitzaldi, aurkezpen eta tailerrena ere. “Daukagun denbora hori gehiegi filosofatzen pasa beharrean daiguna partekatu eta praktikan jartzeko erabiltzen dugu”, azaldu digu.

Garbiñeren hitzaldi batean izan bazara sekula –ez bazara izan, hemendik gonbita hurrengoren bat gertu xamar tokatzen zaizunean joatekoa– ikusiko

zenituen bere aurrean edo inguruan sei landare. Garaiaren arabera aukeratuak. Horiek oinarri hartuta hitz egiten du aurrena liburuaz, gero sei horiexen aplikazio praktikoa egiteko.

Baina partekatze leku ere bilakatzeko dira gune hauek sarri. Une bereziak izan ohi dira. Tokian tokian –eta etxe batetik bestera– desberdinak dira belar bakoitzarekin egiten direnak, formulak, helburuak. Batzuek aprobetxatzen dute berena kontatzeko, jakintza transmititzeko –beste batzuk jakin bai eta mutu mantentzea erabakitzen duten bitartean–. Beste batzuek haurtzaroko bizipenak azaltzen dituzte, hunkituta. Badira sendabelarrekin izandako istorioak aitortzen hasten direnak ere.

“Uste dut askotan pentsatzen dugunaren kontrara, jakintza hau gurean ez dagoela galtzear”, azaldu digu Larreak eta beste uste bat gezurtatu nahian jarraitu du: “Gerturatzen den jendea anitza da, ez da adin bateko emakumea bakarrik; landareekin bere lehen esperientziak bizitzen ari den gazte urbanotik hasi eta bizi guztian sendabelarrak inguruan izan dituen baserritarrekin; gizonak ere asko”.

Hitzaldi eta liburuak euskara hutsan egin izanagatik izan ditu gorabeherak, baina nik baino hobeto esplikatzeko du berak Argia.eus-en aurkituko duzun *Euskararentzat gu sendabelar* artikuluan.

## JUSTIZIA POETIKOA

Garbiñe Larrearen hitzaldia ez da bat eta bakarra, gai desberdinak lantzen ditu hitzaldi bakoitzean. Xarabe jakin baten tailer teoriko praktikoa izan liteke edo sendabelar baratzea egitekoa, baita sendabelarren beste aplikazio batzuen azalpen eta aplikazio praktikoez aritzeko espazioa ere.


Pentsa gauzak nola diren, ez oso aspaldi guardia zibilez betetako Leitzako kuartelean, hamaika euskal herritarrek ondoegi oroitu dituzten ziegetako batean aritu dira Euskal Herriko txoko ugaritatik gerturatutako emakumeak euren zikloez eta osasun hormonalaz, sendabelarrak uztartuz. Ez al da polita?

## HEMENDIK AURRERAKOAK

Agenda betea du Garbiñe Larreak. Abuztuan atsedean pixka bat hartuta, irailetik aurrerakoak ere topera ditu: Azpeitia, Otxandio, Ataun, Urnieta... Zita guztiak ezagutzeko, Argia.eus/solasaldiak atalera joatea da hoberena.

Eta horrelako hitzaldi, aurkezpen, tailer edo antzekoren bat antolatzekotan bazabiltzate, idatzi [solasaldiak@argia.eus](mailto:solasaldiak@argia.eus) helbidera. ●





**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

# Madril ez da faxismoaren hilobia

**M**adril, 1939. Hiria frankisten esku erori baino lehen, munduko faxismoaren aurkako hiriburutzat jotzen zen, gobernu errepublikarraren propaganda eta gerra garaian handik pasatako intelektual antifaxista ezagunak medio. Garaileek hiriburua Sevillara, Salamancara edo Burgosera aldatzea pentsatu zuten, Madrilen kutsu hartatik libratzeko. Baina Madril bera aldatzea erabaki zuten.

Handik aurrerakoak *Madrid, metrópolis (neo)fascista* (Crítica, 2023) liburuan bildu berri ditu Pablo del Hierro historialariak. Madrildarra izaki, gaztetan muturreko eskuinak hirian zeukan eragina ikusi zuen. Besteak beste, futbol zelaian zegoen Atlético de Madrid bere talde kuttuneko zale faxistek Aitor Zabaleta hil zutenean. “Nire buruan geratu zen hori, eta arrazoi bakarra ez den arren, liburua idaztera bultzatu nauen gauzetako bat da”.

Esan bezala, Madril hartu bezain pronto hiriaren irudia aldatzeari ekin zioten frankistek: kaleen izenak aldatu zituzten, auzo batzuetan errepresio bor-

titza egin zuten, proiektu urbanistikoren bat martxan jarri zuten, Mussoliniren Italiako eta Hitlerren Alemaniako pertsona ezagunak gonbidatu zituzten...

Bigarren Mundu Gerraren amaieran Madril *ratlines* delakoen geltoki bihurtu zen, hau da, ihes egiten ari ziren gerra kriminalen babesleku. Hainbat erregimen faxistetako kide garrantzitsuez osatutako egitura nahiko informalak ziren, esaterako, Mario Roatta Mussoliniren zerbitzu sekretuetako buruari Madrilerira iristen lagundu ziotenak. Juduak Frantziatik egozteaz arduratu zen Louis Darquier de Pellepoix ere Madrilen ezkatatu zen haien laguntzarekin, Hirugarren Reicharekin kolaboratu zuten beste batzuk bezala. Zaila da jakiten zehazki zenbat izan ziren, baina “gutxienez ehunka batzuk” izan zirela uste du del Hierrok.

## GERRA HOTZAREN EROSOTASUNA

Gerra Hotza iritsi bitartean, Madrilen ezkatatutako faxisten helburua bizirik irautea zen, baina 1949tik aurrera jardun ekonomikoa eta politikoa berreraikitzen hasi ziren.

Hala, Gastone Gambarra jeneral italiarra Argentina eta Espainiaren arteko gari merkataritzaren bitartekari nagusia izango zen. Otto Skorzeny SSetako koronel ohiak hainbat sozietate sortu zituen inportazio eta esportazioetan aritzeko –Markina-Xemeingo bere egonaldietan ere egin zituen negozioak armen ekoizpenarekin–, eta ezkutuan armadak antolatzen saiatu zen. León Degrelle belgikarrak 50 urte eman zituen Madrilen, 1945ean Donostiako Kontxan larrialdiko lurreratzea egin ondoren, eta 60 eta 70eko hamarkadetako talde neofaxistekin harremanak izan zituen. Bestalde, eskuin muturreko sarearen inguruan ibili ziren Madrilen amaitu zuten Hego Amerikako hainbat diktadorek ere: Marcos Perez Jimenez, Fulgencio Batista, Ramfis Trujillo...

## 70ETAKO FAXISTA BERRIAK

Hortik denbora batera, eskuin muturreko militante belaunaldi berri batek hartu zuen indarra hirian, 70eko hamarkadan. Gazte horiek ez zuten Espainiako 1936ko Gerra Zibila bizi izan, erregimen frankistarekiko kritikoak ziren, eta diskurtsoez haratago ekintza behar zela uste zuten; indarkeria, alegia. Vicente Talónen Joven Europa eta Blas Piñarren Fuerza Nueva erakundeetan antolatu ziren batez ere. Indarkeria espiral izugarria eragin zuen horrek. Madrilen bi erakunde neofaxista lehian ari ziren, erradikalagoa zein zen erakusteko”.

Hala, estatu kolpe baterako giro proposa bultzatzen ari ziren. Baina 1981eko kolpeak porrot egin eta 1982an PSOEk hauteskundeak irabazi zituenean, atzera egin behar izan zuten. Hortxe amaitzen da Pablo del Hierrok liburuan bildutako bidea, baina ez eskuin muturrarena. “Oraindik jakiteke dago VOXek zer hartu duen Madrilen hainbat hamarkadatan hainbesteko garrantzia izan zuten eskuin muturreko ahotsetatik”. Duela 40 urte atzera egin eta estrategia berriak pentsatu behar izan zituzten, baina, orduan ere, Madril ez zen faxismoaren hilobi izan. ●



“ ”

# Lehen saltzen zenaren hamarrena saltzen da egun

Patxi Goñi, Gor Diskak

Antonio eta Marino Goñi izan ziren erretiroa hartzen lehenak 2011n, eta hirugarren anaiaren txanda heldu da 2023ko irailean. Hiruren artean ia 300 lan argitaratu dituzte 32 urteotan, tartean, ibilbide oparoa egin duten taldeen lehen diskoak: Berri Txarrak, Ken Zazpi eta Zea Mays. Apustu handiak egin dituzte, besteak beste Tijuana in Blue eta Hemendik At argitara eramanda. Ekainaren amaieran eten du Patxi Goñik lokalaren alokairu kontratua, eta dena husteko azken txanpan zela bildu gara berarekin; hainbeste kaxaren artean dokumentu, kartel eta disko historikoak topatu ditugu.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  ZOE MARTIKORENA

## Nekatu zara?

Apur bat bai. Ezetz esan beharko nuke, baina hala da. Hainbeste urte daramatzazunean oso zaila da *txistea* eta gogoa edukitzen jarraitzea. Tarteka talde batekin flipatzen duzu eta ilusioari eusten diozu berriz, baina oro har, bai, oso zaila da, eta nekatu naiz.

## Kontzertuetara joaten jarraitzen duzu?

Ez, aspaldian ezer gutxi. El Drogas-en 40. urteurreneko kontzertua ikustera joan nintzen ekainean, Iruñean izanik gainera, nahitaez joan beharreko zita zen. Bestela ez naiz joaten. Iristen zaizkit komentario batzuk handik eta hemendik, eta horrela jarraitzen dut talde batzuen pista, ahal dena.

## Eta zergatik? Zer dago horren atzean?

Izugarrizko nagia. Aurrekoan, justu he-

men alboan, Arrosadiako auzoko jaie-tan jotzen zuen Tatzers-ek. Poteo apur bat, afaria genuen, taldeak gauerdian hasten ziren, Tatzers hasterako goizaldeko hiruak-edo izango ziren... eta nik hori ja ez dut aguantatzen. Oso zaila egiten zait. Hara eta hona aritu gara urte mordoan, gautxori moduan sarri, baina orain, etxean nagoela, zama moduko bat sentitzen dut. Hauxe da dagoena.

## Musika asko entzundakoa zara.

Lan honetan hasi aurretik ere asko entzundakoa nintzen, eta zer esanik ez hau muntatu genuenean. Orain ere jarraitzen dut entzuten, nire kasa. Egungoa baino garai okerragoa pasatu nuen due-la bi edo hiru urte: ezin nuen gehiago, ezin nion eritmoari eutsi, saturazioa oso handia zen. Sekulako nagia neukan gauza berriak entzuten jartzeko. Baina heldu nion berriz, ez dakit nola, berrartu nuen, eta behar nuen.

## Oso lan monotono eta sedentarioa ez da izango.

Goizetan, hona heltzean, korreoa ireki, deiak erantzun, iristen zitzaizkidan gauzak begiratu, salmentak kudeatu, pake-teak egin, garraiorako paperak... Tramite lan horiek beti zeuden egiteko, eta behin

hori eginda hasten nintzen musika entzuteko lanean, talde berriak topatu eta talde ezagunen pista jarraitzera. Goizeko ha maikak edo izan ohi ziren, kafea hartu eta horretan jarri. Jakina, urteko garaia araberako oso aldakorra da zeregina.

**Ekainean egiten ari gara elkarrizketa. Uda garai ona izango da gauzak merkaturatzeko, ezta?**

Uda aurretik egitea hobe litzateke, jendeari denbora eman behar zaio-eta. Momentu honetarako, produktu guztiak kalean behar lukete. Udaberrian publi-

katuko bagenu talde baten diskoa, elkarrizketak eta erreportajeak kudeatzen eta egiten ariko ginatete garai honetan.

**Diskoa kaleratu osteko lana ere handia da, beraz.**

Udaberriro pare bat disko egiten genituen, ez da inoiz gure filosofia izan ahalik eta gehien egitea. Nahiago izan dugu disko gutxiago egin baina ahalik eta landue- nak izatea.

**Musika entzun eta taldeak ezagutzea izan da zeure zereginetako bat, gero,**

**pentsatzen dut, haiekin kontaktuan jartzeko. Alderantziz ere gertatuko zitzaituz, haiek zugana jotzea.**

Eboluzioa izan du. Honetan hasi gine- nean, Balerdi Balerdi taldean jotzen ge- nuenez, jende gutzia ezagutzen genuen, oholtza mundu guztiarekin partekatzen genuelako. Skalariak horrela ezagutu ge- nuen, eta Urtz ere bai, Baztanen. Lekaroz- zen irakasle zen gure lagun batek propo- satu zigun Urtz-en maketa entzuteko, eta bide batez haiekin jai batzuetan oholtza partekatzeke. Lehenbizi geuk jo genuen, eta gero haiek. Benetan diotsut, sekula- ko zoramena izan zen haien emanaldia, zeinen onak ziren zuzenekoan, erabat giro baztandarra. Grabatzera etortzeko proposatu genien, eta haiek baietz, harri- tuta, lehenbiziko aldia zelako eskaintzen zietela.

**Eta behin oholtzak utzita, zailagoa da pista jarraitzea?**

Zirkuitua galtzen duzu, eta taldeak eza- gutzeko modua aldatu egiten da. Konz- zertuak ikustera joanda asko ikasten da, jakina, baina bestela handik eta he- mendik iruzkinak heltzen zaizkizu, kon- fiantzazko jendeak deitu egiten zaitu, eta taldeengana iristen zara askotan taldeek eurek proposatu dizutelako. Gero, talde horiekin orduak pasatzean, beste talde eta musikarien berri ere ematen dizute, eta proposamenak egin ere bai. Soinu teknikariekin ere tratu ona izan dugu eta informazio asko eduki ohi dute guretzat interesgarria dena.

**Zer behar du talde batek zuen arreta deitzeko?**

Oro har, Marinok eta biok hiru osagarri aipatzen genituen: originaltasuna, inda- rra eta letrak onak izatea. Hiru osagarri horiek hartuta, konbinatzen jakin behar da, abila izan.

**Talde nafar askorekin egin duzue lan.**

Geure lurraldea delako, hori izan da abia- puntua. Hemen mugitu izan gara beti, eta jendea ezagututa, dena eskuragarriago izan dugu. Gu bezalako diskoetxe txiki batek ez dauka besterik: ez zara Bizkaiko beste puntara joango talde ezezagunak entzutera. Edo bai, baina beti izango da zailagoa. Agian orain errazagoa da.

**Musikan eman dira aldaketak, estilo berriagoak sartuta, eta Euskal Rock Erradikalaren garaia atzean geratu da. Nola bizitu duzue? Suposatu duzue**



**aldaketarik?**

Ez dugu izan inoiz estilo definiturik, eskotan hitz egin dugu gure artean, agian gure estilo definitu bakarra zela taldea gustatu behar zitzaigula, zuzeneko onarekin, letra, karisma... Dena aldatzen da etengabe. Garaiak, formak eta estiloak aldatzen dira; ezer ez da egonkorra. Horregatik ez gara inoiz ezertara mugatu.

**Estilo ugariko taldeekin egin duzue lan.**

Jo, bai. Urtz hardrock amerikarraren estilokoa zen, Los Ganglios tecno-punk moduko zerbait, oso originala...

**Tijuana in Blue...**

Eta Kojon Prieto y Los Huajolotes. *Txin-gote* batzuk ziren, barrez lehertzeoak. Ez zekiten ezer jotzen, baina jendeari gustatzen zitzaizkion. Zuzeneko horiek... Jendea zoratu egiten zen.

Tijuana eta Potato-ren diskoa entzuten duzu gaur egun eta flipatzekoa da, harrigarria, lata hutsak errenkadan jarrita nola sortzen zuten musika. Oso garai punk-a zen, "lau gauzekin musika

“ ”

***Dena aldatzen da etengabe: garaiak, formak, estiloak... Ezer ez da egonkorra. Horregatik ez gara inoiz ezertara mugatu***

egin dezaket" teoria hura. Letra horiek ere izugarriak ziren, sekulako *txistea* zeukaten.

**Eta nola ahaztu: Hemendik At.**

Hilabeteak pasa zituen haien maketak Marinoren apalean, ez baitzuen hain argi ikusten hura argitaratzeko aukera. Oso arraroa egiten zitzaion, erreparoa ematen zion, bertigoa-edo. Hegoko hai-zeak eman zion egun batean atera zuen hortik, berak ere ez daki ongi zergatik,

eta urteko bildumetako batean sartu zuen *Goazen* abestia, inork ezagutzen ez zuena, eta Koma, Berri Txarrak eta Skarlariak-ekin konbinatu zuen. Zalaparta apur bat sortu zuen jakina, iritzi kontrajarriak zeuden. Jaietako txosnetan ez zen oso ongi etorria izan, eta begira non amaitu duen, non mantentzen den.

**Gerora, rock-ari oso lotuta, berrikuntzetako bat izan ziren Kerobiaren piano doinuak.**

Beraiei ez zaie gustatzen esatea, baina garaiko pop doinuak ziren haienak, Coldplay-en tankerakoak, pop ingelesa. Baina ez ziren kopia bat. Pertsonalitate handiko taldea zen hastapenetatik, eta bereziki onak ziren. Maketa eman ziguten entzuteko, eta flipatu genuen. Lehen diskoa dezente zabaldu zen, eta salto ikaragarria eman zuten gero bigarrena-ekin, Rose Escargot diskoarekin.

**Beste garai baten parte ziren?**

Mende aldatetarekin sumatu den zerbait izan da beste belaunaldi bat zetorrela, musikaz gehiago zekiena. Prestakun-



tza akademiko handiagoa, kulturalki eta musikalki askoz ere jantziagoak... Musika oso maila altuan jotzen zuen jendea ezagutzera eman zen, baina jakina, horrek ez du esan nahi Tijuana in Bluekoek baino *txiste* gehiago daukatenik. *Txistea* eduki behar da, grazia, publikoaren gaitasuna heltzeko talentua.

### **Nafarroa aipatu dugu, baina Bizkaira ere jo zenuen. Mende berriaren hasiera horretakoa da Zea Mays.**

Beste hainbat talderekin batera atea ireki zioten mendeari. Oso onak ziren, indartsuak. Ken Zazpi-k ere sekulako talentua zuen lehen egunetik, eta asko saldu zuten, guretzat itzela izan zen. Egia da Exkixu-tik zetozela, karrera eginda, bere horretan ezagunak zirela beraz, baina tiradari eutsi zioten, hasieratik publikoarekin konektatuta.

### **Zuentzat ere itzela izango zen bestea: Berri Txarrak.**

Igoera mailakatuagoa izan zuten hauek, pixkanaka joan ziren, eta gero bai, leheritu zuten eta garai bat markatu, jakina.

**Garaiak aldatu dira kontsumoan ere.** CDrik ez da saltzen gaur egun. Oso-oso talde garrantzitsuak soilik egin ditzake disko eta poster tirada handiak, eta salduko du bera delako, baina gero ziur ez zaiola erabilerarik emango.

### **Berri Txarrak-en modukoekin garai onak bizituko zenituzten.**

Txarrak ere bai urte askoan; erdi-pensionista moduan egondakoak gara (barre egin du). Hastea kostatu zitzaigun duela 32 urte, eta ondo funtzionatzen hasi ginen behin Urtz eta Los Huajolotesekin. Jaitsi ginen, berriz igo Ken Zazpiren garaian, eta gero Berri Txarrak-ekin izan zuten segida. Marea-ren disko bat ere egin genuen hain ezagunak ez zirenean; horiekin bai egin genituela zifra handiak.

### **Zeri diozu zifra handiak?**

Lehen, 10.000 disko saltzen genituen disko on batekin, eta Marea-rena 25.000ra iritsi zen uste dut. Gaur egun, 2.000 saltzea asko da. Eta 2.000 disko saldu beharko lirakeke errentagarria izateko. Lehen saltzen zenaren hamarrena saltzen da gaur egun. Baina badiotsut: dena ez da dirua. Plazer handia da disko on bat egin duzunaren sentsazioa izatea, lanarekin gustura gelditzea; disko batekin irabazten duzuna inbertsioa da galerak izango dituen beste batentzat.



### **2008ko krisiaren ondorioz, taldeen kontratazioetan zentratu zineten.**

Egoerari buelta emateko irtenbidea zela iruditu zitzaigun. Marino anaiak bere bizkar hartu zituen Kerobia, Lendakaris Muertos eta beste hainbat talde, eta haiekin egin zituen birak Espainiako Estatuan.

### **Eta gero etorri zen pirateriaren garai. Hura ere pasatu zenuen.**

2008an krisiak lehertu zuenerako, guk bageneramatzen bost bat urte pirateriaren krisia jasaten. Ez genion amaierarik ikusten. 2010, 2011... Horixe izan zen CDaren heriotzaren iragarpena.

Egia esan, zorionez, AEBetako multinazional bat etorri zen Euskal Herrira, musika digitalizatzeko banaketa-enpresa bat zen, eta hemengo zigilu handi eta ezagunak eraman zituen. Haiekin kontratua egin eta argia ikusten hasi ginen. Mespretxuz begiratzen bagenion ere, laguntza handia izan zitzaigun, urtez urte gure zifrek gorantz egin baitute. Ea zenbat denbora irauten duen, mundua oso azkar aldatzen baita.

### **Diskoak ez saltzera ere ohitu behar.**

Garai gogorrek pasatakoak gara. Bizitzeko falta zitzaiguna pandemia zen, eta hori ere gaingitu dugu. Hain moderno den "erresilientzia" terminoa erabiltzen da sarri; ba hori, moldagarriagoak ezin gara izan.

### **Ixtea tokatzen zaizue orain. Kaxa eta kaxa artean gaude, hankaz gora daukazue guztia. Lan franko dago hemen.**

Ez dakizu honek ze nagia ematen didan (barre egiten du). Bidelagun izan ditugun taldeei haiena dena itzultzen ari gara, haien eskura jarriko baititugu master lan guztiak. Ez genekien zer egin, ez dakigu zer egiten den halakoe-tan, eta haien eskuetan jartzea erabaki dugu, justuena dela iruditzen zaigu.

Horrez gain, Nafarroako Gobernuaren Musika Artxiboari emango dizkiogu urteotako mila maketa, kontzertuetako kartelak, argitaratu ditugun lanen agerpenak prentsan... Aukera hori aztertu du Marinok eta esku zabalik hartuko gaituztela esan digute. Beraz, bikain. Jendeak, zaletuek edota ikerlariek ikusi eta aztertu nahi badute, hortxe izango dute.

### **Zergatik ez duzue zigilua beste norbaiten eskuetan utzi?**

Logikoena litzateke, bai. Eduki genuen eskaintza bat, baina ez gintuen gehiegi konbentzitu. Izan ere, erabaki hori hartuz gero, zigiluak bere identitatea galdu zezakeela iruditu zitzaigun, beste mota bateko taldeak argitaratzen has zitezekelako, eta Gor-ekin lan egin izan duten taldeak ez lirakekeela gustura egongo. Aritu gara jende dezenterekin hizketan, eta aurkitu genuen pertsona bat aproposa izan zitekeena. Astebete hartu zuten pentsatzeko, baina lan gehiegi zela irizita, uko egin zion. ●



LIBURUA

# Benetan identifikatutako egoerak


 JON TORNER ZABALA

**H**amaika ipuin irakurri dizkiegu etxean zazpi eta bederatzi urteko seme-alabei, eta esango nuke sekula ez ditudala hain *engantxaturik* ikusi, Biga benetan identifikatu gabeko animalia- eta haren adiskideen abenturekin baino. *Teo* hilezkorrekin izan zuten fase nahikoa intentsoa, baina istorioak baino marrazkiek harrapatzen zizuzten, jolas moduan hartuta pertsonaia hau eta beste topatzea.

Bigarekin ez, animalia urdinaren xelebrekeriek zoraturik dauzkate, oheratzean zaharrenak gazteenari bizpahiru istorio irakurtzeraino –laburrak baitira abenturak, bi orrialdekoak ia denak–. Tarteka barrez entzuten ditugu umeak, Biga eta haren lagunaren pasadizo eta ateraldiengatik. Adiskidetasunaz mintzo dira Astiberrik plazaratutako *Biga* bil-

dumako bost liburuak, lagunaren arteko konplizitateaz, inbidiaz, aliantzez eta sarri konturatu gabe egiten diren trazioez. Eskolan eta haren inguruan gertatzen dira abentura asko, baina Bigaren etxean ere, non bere gurasoek etengabe borrokatu –zentzu onean– beharko duten haren ahalmen harrigarrien aurka.

Samurtasunez kontaktzen dituzte istorioak Romain Pujolek eta Vincet Cautek, bihurrikeria bihurrienak bezala desamodio istorioak edota klaseko azpiratzaileen arlotekeriak. Umeen unibertsoan ohikoak direnak bildu dituzte liburuetan, eta agian horregatik erakartzen dituzte hainbeste. Istorio laburrak izateak ere izango du loturarik –aspertzeko betarik ez dute ematen–, baina animalia bakoitzaren izaera bereziak ere, edo Cauten marrazki koloretsuek, edo liburu bako-

tzaren amaieran dauden jolasek: asma-kizunak, hieroglifikoak, *Non dago Wally?* tankerakoak, ariketa matematikoak...

Bego Montoriok, Jon Muñozek eta Aintzane Atelak euskaratu dituzte bost liburuak (*Benetan identifikatu gabeko animalia; Super laguna!; Errekreazioak, klik eta ekin!; Biga endreda-makila* eta 2023an plazaratutako *Bat eta bakarra*). Aitortzen dut pertsonaien ahotik ateratako espresio batzuek kirrinka eragin didatela apur bat, "jasoegiak" direlakoedo, haur eta gurasoek gutxitan erabiltzen dituztenak; baina, aizue, horrelakoak ere naturaltasunez txertatzen baditugu umeen egunerokoan, hori alde.

Ez dakit Bigaren liburu gehiago izango ditugun euskaraz –frantseseko jatorrizkoan bada seigarren bat–. Zain izango gaitu etxean. ●

GLÉNAT EDITIONS



## BIGA (5 LIBURU)

GIDOIA: ROMAIN PUJOL

ILUSTRAZIOAK: VINCENT CAUT

ASTIBERRI





MUSIKA

# Bilatu eta zapaldu

IKER BARANDIARAN

**L**a Excavadora Gasteizen jaio zen pandemia betean, erabat gogaituta eta nazkatuta geundenean. Aitortzen dut nolabaiteko ilusioa piztu zuela behingoz norbaitek berriro rocka, izerdia, garitoak, kalea eta lotsa-gabekeria aldarrikatzea. Are gehiago, bada sistemaren kontra talka egitera inspiratu zuenik ere –kar kar kar–.

Gerora, a-normalitatera bueltatu ahala, La Excavadorako pieza bakoitza bere ohiko zereginetara bueltatu zen, jatorrizko proiektuetara. Orain, hainbat aldaketa medio, taldea bueltan dator, eta bi ardatz nagusiek jarraitzen dute noski: Sumision City Blues, Obligaciones, Victi-

mas Club eta beste hainbat proiektutako aurrelari eta letrista 'Pela'; eta La Polla zein Gatillazo taldeetan luzaroan trebatutako 'Txiki'.

Gitarrei punta gehiago atera nahi izan diote eta haien estreinako lanak zeukan 77ko ukitu hura arindu dute, kaleko rockari eta melodieie garrantzi handiagoa emanda. Eta, jakina, hitzek kalea puripurian arnasten jarraitzen dute, halako sudurra dauka-eta 'Pela'-k.

Hard-rock buzoa jantzita duen *Grasa en el taller*-ekin hasten dute bide berria; eta The Cult-en kadentzia daukan *Aún queda un sitio a donde ir* hartu dute ezkutaleku. *Habrá pelea*-n burua altxatu eta



## TODO ES PARA DESTRUIR

LA EXCAVADORA

MAUKA, 2023



77ko punkaren erritmoan egingo dute borroka. Eta *Canción sin nombre* da izengabea baina borobila: badauka punketik, Barricada-ren ahaidetasunetik eta baita ere gitarra zein erritmo pisutsuagoa. *Mi novia y yo odiamos a la humanidad* da zirikitzaile eta jostariagoa, eta baditu ia Oi! leloak. *Quiero ver cómo sufres* berezia da, Juantxo Arakamak (Glaukoma) eta Monsieur Le Crepe-k lagundutako tenpo erdikoa. *Carrera delictiva*-k hortzak erakusten ditu, indartsu, behar den bezala; eta *Detrás de ti* da punk-rock azkarra. *Nuestro amor suicida* da El Drogasek zizpriztindutako rock balada. *Jaleo por las noches* da itsaskorra eta tarteka heavya, askoren gaur egungo errealitate gordinaren eresia. Azkenik, *Hoy vuelvo a ser persona* aste erdiko gogoeten parekoa da, misterioitsua. ●



# Hasperenik ez

**GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA**

**T**xosnagunetik metro gutxira daude zezen plazatik irten eta udaletxearen aurrera heldutako zezenzaleak, albokoa lepotik hartuta, txarangako kideen *Suspiros de España* pasodoble popular espainiarrarekin gozatzen, eta alboan dituzte Queen-en talde tributukoak, beren lana amaituta, gauzak jasotzen. Feste-tara joan den gipuzkoar batek harridura apur batez hartu du egoera, halako *kantikoak* askozaz ere hegoalderago espero zituelako akaso, edo halako manifesturik are gutxiago imajinatzen zuelako EH Bilduk alkatetza daukan herrian. Errealitateak eta ezezagutzak ematen dituen kolpeak dira horiek, autoz ordubeteko bidaia egin eta kontuak dezente aldatzen diren Euskal Herrian. Hori bai, txosnagunera minutu bakar batean heldu eta orduan sentitzen da bat etxean, Tafallako ikastolako gurasoek mimoz prestatutako ogitarteko eta pintxoak afalduta.

Tafallarren artean gipuzkoar batzuk bisitari, eta txosnaguneko oholtzan

bizkaitarrak musikari. Gualdeko hamarrak aldera eszenaratu dira Lukie-keko hiru mutilak, eta publikoak, hasiera batean bederen, nahiko hotz jokatu du. Jendea afaltzen ari delako, Iruñetik atzerapenarekin datorrelako aldirietako tren *retroa*, Mungiaiko bizkaiera arrotza suertatzen delako edo egongo da beste arrazoirik, batek daki, baina kontua da dozena erdi abesti jo behar izan dituztela gerri batzuk dantzan jartzeko. Sail honetan idazten duen batek esan zidan behin Gipuzkoako publikoa zail samarra dela; panorama ikusita, orain ez dakit zer pentsatu. Egia da: Lukiekek ez du ez salsa ez antzerako doinurik jotzen, baina egiten duen rocka dantzarria da. Erritmo, doinu eta melodiak laguntzen dute burua goitik behera mugitzeaz harago gorputza askatzen.

Hibernazio pandemikoan ereindako artelanetako bat da #2 gisa izendatutako diskoa. Post-punka erritmo psikodelikoekin nahasita, eta #1 diskoan

## LUKIEK


Tafallako jai herrikoietan, abuztuaren 19an.

erreibindikatu zituzten 1990eko hamarkadako ukitu musikalei jarraituta, azken diskoan *autotunea* eta musika garaikideagoa uztartu dute. Eta gauza bat izaten da diskoan gitarra mila geruzatan grabatu eta detaileak fin orraztea, baina hori gero zuzenekora eraman egin behar da hiru lagunaren artean. Lukieken kasuan, indartsua da oso oholtzatik emozioak plasmatzeko duen gaitasuna; izango da Christianek baketak apurtzeraino jotzen duelako, edo izango da hirurek badutelako eszenara irteteko esperientzia, eta bistakoa da badutela abilezia.

Emanaldiaren osteko atsedean eta trago artean baten batek ahobero esan du Lukiek izan daitekeela euskal musika eszenako talderik onena garai likido hauetan. Irizpideak zehaztu eta definitu nahian alameda eman dute, talde gehiagoren izenak atera dira, ez dute eztabaida itxi, baina inork ez du Lukieken aukera baztertu. ●



## Gurutzegrama



### EZKER-ESKUIN:

1. Haragia. / Seme edo alaba bat edo gehiago dituen emakumea (pl).
2. Hark ... nola, nik hari hala. / Gipuzkoako enpresariaren elkarte.
3. Gorri bizi.
4. Oihan bihurtu, zuhaitzez estali.
5. Ipurtzulo. / Egokia ez dena.
6. Bizkaiko udalerrria, Nerbioiren ertzean. / Bultzatzer behartu.
7. Basa sagu. / Eireko biztanle.
8. Hagoan, orekaz. / Gune sakon.

### GOITIK BEHERA:

1. Behar den bezala. / Txoria, parkeetan sarritan ikusten duguna.
2. Aho-gaixotasun. / Nafarroako herria.
3. Nafarroa Behereko mendia (argazkian).
4. Lirrikari dagozkionak.
5. Junkazeoen familiako landare. / Galioaren ikur kimikoa.
6. Ordena batzuetako mojei esateko era. / Arabiar izenetan, seme-alaba.
7. Adineko.
8. Ehunaren edo oihalaren ertz.
9. Zilarrenen ikur kimikoa. / Iritzia, aburua.
10. Norekin atzizkia. / Salbu.
11. Iratze.
12. Erloju, ordulari.
13. Etxeko animalia.
14. Ukan.
15. Trikitian, adore emateko hitza.

## Sudokua

ERRAZA



						5									
3	9											7			
		7	6			4				1	3				
5	2	9	7			6	4								
4		6	1	9						2	5				
		3	4	5			7	9							
7				4	8					6	9				
6	4	8	9							2	5	7			
	3	5				7	1					4			

ZAILA

	8		3	2				1							
		1	8		5			9	6						
								2							
4		3	2					7			5				
1				5		6	8				3				
										2					
		1				7			8	4					
	7	8						6							
9						3									

## Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



## Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Zelai, belardi
- Bizi garen planeta
- Argi
- Uharteak
- Lego
- Mokor, lur-zati trinko
- Burusoila, karsoila
- Trankil, bare
- Enara
- Martxo
- Sama, iduna
- Azkordin
- Lotu gabe

LARRE
SOLTE

### EBAZPENAK

OSASUNA EDERKI DOA.  
ONGI EGINEZ GERO LOA.

### ATSOITZITZA

- SOLTE
- OSPEL
- LEPOA
- EPAIL
- ELAIA
- LASAI
- SOLLA
- SOKIL
- LAIKO
- IRLAK
- KLARU
- LURRA
- LARRE

### ANAGRAMAK

9	6	4	1	8	3	5	7	2
5	7	8	9	4	2	2	6	3
3	1	2	6	5	7	9	8	4
8	5	6	7	3	4	1	2	9
1	2	7	5	9	6	8	4	3
4	9	3	2	1	8	7	6	5
7	3	4	6	1	2	2	5	8
2	4	1	8	7	5	3	9	6
6	8	5	3	2	9	4	1	7

ZAILA

9	3	5	2	2	6	7	1	8	4
6	4	8	9	3	1	2	5	7	
7	1	2	5	4	8	3	6	9	
1	8	3	4	5	2	7	9	6	
4	7	6	1	9	3	8	2	5	
5	2	9	7	8	6	4	3	1	
8	5	7	6	2	4	9	1	3	
3	9	4	8	1	5	6	7	2	
2	6	1	3	7	9	5	4	8	

ERRAZA

ESKER-ESKUIN: 1. OKELA, AMAK, 2. NIRI, ADEGI, UGAO, BULTZARAZI, 7. SATAGIN, EIRETAR, 8. OREKAN, 3. GORRIMIN, 4. OIHANDU, 5. UZKI, DESEGOKIA, 6. SAKONUNE.  
GOITIK BEHERA: 1. ONGI, USO, 2. KIO, UGAR, 3. ERROZATE, 4. LIRIKOKAK, 5. IHI, GA, 6. AMA, BIN, 7. ADINDUN, 8. MENDEL, 9. AG, USTEA, 10. KIN, EZIK, 11. GARO, 12. OREN, 13. KATU, 14. IZAN, 15. AIRE.

# Andrea Momoitio

KAZETARI AKTIBISTA



## PENTSAMENDU FEMINISTA ALDARRI

“Feminismoaren sozializazio politikoa gogoratzen dut armairutik atera nintzen unean hasi zela, agian zertxobait lehenago. *Bolloa* izatearen inguruan erantzunak bilatzen hasi nintzenean topo egin nuen feminismoarekin eta, orduz geroztik, bidelagun izan dut. Gero, *Pikara Magazine* aldizkarian murgildu nintzen ikasketen bigarren urtean. Ordura arte, argi nuen matxismoaren eta heteropatriarkatuaren aurrean non kokatzen nuen nire burua, baina, noski, zorionekoa izan nintzen *Pikara*-n ia neurritan egindako eskola bat aurkitu nuelako. Kazetaria izan nahi nuen txikitatik, ez dut sekula beste aukerarik ikusi. Gogoratzen naiz txikia nintzenean auzoko emakumeak elkarrizketatzen nituela eta gero etxera joaten nintzela solasaldiak Word-era pasatzera”.

## “Faxismoak mehatxatzen jarraitzen duelako, ezinbestekoa da Sinsorga”

Kazetaria eta *Lunática* (Aldartetsu) liburuaren (Libros del KO, 2022) idazlea da Andrea Momoitio. Irantzu Varela kazetariarekin batera kultura eta pentsamendu feminista sustatzeko Bilboko Alde Zaharreko Sinsorga kulturunea sortu berri dute.

 SAIOA BALEZTENA  PELLO MAUDO HERRERO

### Ekainaren 23an zabaldu zituen ateak Bilboko Sinsorga kulturune feministak. Noiz eta nola sortu zen egitasmoa?

Zerbait sortzeko ideia aspaldikoa da. Kontua da *Pikara Magazine*-n egoitzaren pareko eraikinean zuela Irantzu Varelak bere bulegoa. Denborekin argi izan genuen ez zuela zentzurik bi lokalak mantentzeak, eta, zalantzarik gabe, elkarrekin egotea zela onena. Poliki-poliki ideari forma ematen hasi ginen, hainbat lokal ere begiratu genituen, baina ideia bertan behera gelditu zen. Egun batean, Bilboko Plaza Berritik atera nintzenean, eraikina parez pare ikusi nuen eta argi izan nuen han izan behar zuela. Ideia berpiztu zen horrela.

### Elkarrizketa batean irakurri nuen zuei joatea gustatuko litzaizuekeen tokia sortu nahi zenutela. Faltan botatzen dituzu Sinsorgaren gisako erreferente eta espazioak?

Ez dut uste falta direnik, aterpe eta babesleku feministak betidanik izan baititugu. Batzuetan klandestinoagoak izan dira, beste batzuetan agerikoagoak, baina beti egon dira Bilbon eta Espainiako Estatuko beste hain-

bat txokotan: Raposa Bartzelonan eta Oveja Negra Madrilen, esate baterako. Egia da normalean espazio txikiagoak izaten direla guk sortu dugun *bilbainada* honekin alderatuta...

### Kultura eta pentsamendu feminista sustatzeko espazioa da Sinsorga. Nola kudeatuko duzue eta zer eskaintzen du egitasmoak?

Eraikinak lau solairu ditu eta ba-koitzean hainbat eskaintza aurkitu daitezke; *garito* bat, denda bat eta egitasmoak egiteko eta harpidedunentzako espazio ugari. *Garittoa* hiru zerbitzarik eta arduradun batek kudeatzen dute, eguneroko eskaintza bermatzeko. Janaria Sustraiako kooperatibak ekartzen du eta guk eskaintzen dugu lokalean. Denda, oraingoz, Irantzuk eta biok kudeatzen dugu eta bertan aukera dago emakumeek eta irizpide feministak dituzten markak egindako produktuak eskaintzeko. Eta harpidedunentzako gunean, urteko kuota baten truke aukera dago espazio desberdinak erabiltzeko.

### Lehen, ezkontza soinekoen denda izan zen eraikina, eta orain, 300 lagun ingururen diru ekarpenei esker, lau solairuko kulturunea



**feminista bilakatu duzue. Obraren ardurandunak emakumeak izatea zen zuen erronka. Nolako izan da prozesua?**

Nahiko zaila izan da. Batek baino gehiagok abisatu zigun hala izango zela, eta bai, egiaztatu dugu. Auzolanean parte hartu nahi zuten emakumeak aurkitzea ez zaigu bereziki kostatu; zailena izan da legeak eskatzen dituen baldintzetan lan egiteko talde bat aurkitzea. Desesperatzeko modukoa izan da, ez soilik obra bere horretan, prozesu osoa baizik. Hilabete asko pasa genituen geldirik: arkitektoa bere lana egiten ari zen, udalarekin kontaktuan, baina ezin ezer egin. Prozesua nekagarria izan da.

**Prozesu honetatik dokumentala ere sortu duzue.**

Sinsorgaren proiektuan lanean hasi ginenetik Irantzuk eta biok argi izan genuen, seguruenik biok kazetariak garelako, garrantzitsua zela istorioa azaltzea, kontakizunak sortzea funtsezkoa delako. Al Borde Films-eko lagunekin hitz egin genuen eta hasierako ideia hura nortasun gehiago duen produktu batean bilakatu dute azkenik. Prozesua nolako izan den azaltzeaz haratago doa. Ezin dut gehiegi aurreratu, 2025ean argitaratuko da.

**Sinsorga zabalik egon den aste hauetan izango duzue bitxikeria bat baino gehiago kontatzeko, ezta?**

Horietako bat dokumentalean azalduko dugu, ikusi beharko duzue! Hala ere, arazo asko izan ditugu lan egitera etorri diren tipo askorekin, ez gaituztelako ongi tratatu: kuestionatu gaituzte, gure arkitektoaren lana zalantzan jarri dute... Tira,



"Arazo asko izan ditugu lan egitera etorri diren tipo askorekin: kuestionatu gaituzte, gure arkitektoaren lana zalantzan jarri dute".

horrek agerian uzten du patriarkatuak eta bere engranajeak ezin hobeto funtzionatzen duela.

**Espazioaren ateak zabalik daude edonorentzat, transfoboak eta faxistak salbu. Nola bizi duzu eskuin muturraren gorakadaren testuinguru hau?**

Elkarriketa egiten ari garen egun honetan pegatina bat jarri digute Sinsorgaren atarian. Tira, testuinguru hau erne bizi dugu, jaso ditzakegun erasoei adi, bai fisikoak zein birtualak. Baina, batez ere, Sinsorgaren ateak zabaldu genuenetik

ikusi dugunagatik, babes handia dugula uste osoa daukagu. Eta jakina, gertatzen dena gertatuta ere, irmotasunez erantzungo dugu.

**Testuinguru honetan, zergatik dira beharrezkoak Sinsorga bezalako espazioak?**

Azken hauteskundearen emaitzarekin denbora pixka bat irabaztea lortu dugun arren, faxismoak mehatxatzen jarraitzen gaituelako eta espazio propioak behar ditugulako, gure pentsamendu feminista sustatzeko, elkarrekin egoteko eta etorriko denari aurre egiteko. ●

# Rubiales afera, negozio txiki eta handietan esplikatua

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**E**txeko edozein traste saleros- teko erabiltzen den Wallapop aplikazioko bilatzailean “Luis Rubiales” sartzten baduzu, besteak beste honakoak agertuko zaizkizu: kromo bat, Espainiako futbol federazioko presidentea jokalaria profesionala zen garaikoa -20 euro-; eta 2006/2007 denboraldian Levante taldean erabili zuen elastikoaren erreplika bat -120 euro-. Piltzar horiek, prezio horietan. Hum. Aztertzea da. Zerbait adierazten du bizi dugun garai estrainio honek probokatzen dituen salmenta-aurreikuspenez: normalean xentimo batzuen truke erosten dira pasatako denboraldietako kromoak; eta lehen mailako futbol taldeen elastiko berri batengatik 90 euro inguru lapurtzen badizkizute, zaharrago baten prezioak apalagoa behar luke inondik ere.

Pentsa liteke, hortaz, Rubiales markarekin lotutako produktuak tentsio inflazionista betean daudela bigarren mailako merkatuetan. Eta hori gertatzen da merkantzia horien jabeek kalkulatu dutelako 1) oso ugaria ez den ondasun bat daukatela esku artean; 2) Rubialesek Jenni Hermoso jokalaria iraso egin osteko polemikak beste jende mota bat ere aktibatu dezakeela -tipoaren alde egon daitezkeen misogino, *incel* eta pelaje guztietako matxoak-; eta 3) jende hori, merkatu-segmentu gisa ulertuta, prest egon daitekeela hainbeste pagatzeko, lagunarteko unga-ungan zimino nagusi gisa koroatzeko balio dien objektu-fetixe baten truke.

Zarata dagoen lekuan orotariko negozioak sortzen baitira. Eta Rubialesek dimititu ordez bere buruari antolatu dion kalbario -barkatu, egin behar nuen- mediatiko honetan, uste dut negozioaren adarra dela despistatu behar ez denetako bat. Lester Freamonek es-



plikatu ziguna kasu honetara egokituz, Espainiako federazioko presidentea ematen ari den pausoak jarraitzen badituzu, bera bezalako beste gizaseme batzuen potro-usainera bakarrik iritsiko baitzara. Baina diruari segika hasiz gero, urrunago iristeaz gain, gauzak hobeto ulertuko dituzu.

Billete zakarrei erreparatu behar zaie adibidez, konprenitzeko ze labetan egosi den gizonezko futbolari askok asuntuaren aurrean hartu duten jarrera epel-hotza. Dagoen lekura iritsi baino lehen, Rubiales -atzelari harri kozkor samar bat-, lider gremial gisa aritu zen Espainiar Futbolarien Elkartean (AFE) eta hango presidente zela lortu zuen gizonezko jokalaria profesionalen gutxieneko soldatak ezarri zituen lan hitzarmena. Eseri, eseri, izutzeko modukoa da-eta: konbenio hari esker, ligako jokalaria batek ezin du urtean 155.000 euro baino gutxiago kobratu.

Alegia, hamalau soldatatan, hilero 11.000 euro poltsikoratzen ditu lehen mailako probreenak. Eta behin klub ho-

rretan sartzea lortuta, zertarako hasiko zara ideal berdinzaleengatik zure buruari problemak bilatzen? Justu nomina horiek bermatu zituen tipoaren kontra, gainera? Bai, hain kasu okaztagarriaren aurrean gizonezko jokalaria gehienak zeruari begira txistuka gertzea patetikoa da, noski. Baina ulertu ere, erraz ulertzen da nola fabrikatzen den isiltasun hori.

Ez da berria, gainera. Rubiales “sindikalista” ohia askatu nahi ez duen kargura iritsi zenetik dabil fetxorria batetik bestera: salatu zizkieten federazioaren diruz pagatutako orgiak, entzuen genituen Superkopa Saudi Arabiara eramatearen truke negoziatutako komisioak. Baina tipoak bere barrabilei eusten zien. Eta ia 700.000 euroko soldatari -amigo, hara hor, berriz ere, arrazoi on bat kargua ez uzteko-. Eta ez zitzaion ezer gertatzen. Eta gauzak beti horrela izango zirela pentsatuko zuen. Eta espero dut ez direla beti horrela izango, baina ikusitakoak ikusita, beste modu batera izatea ere ederki kostatzen da. ●


# inor ez da ilegala

jantziak salgai jarri nahi dituzu?



Euskal Herri osoan zehar sarea antolatzen ari gara

**[komertzial@argia.eus](mailto:komertzial@argia.eus) 679 81 73 54**



# NO!

ELI PAGOLA, MAITANE GARTZIANDIA ETA MIREN ARTETXE

**Liburu aurkezpenak**  
**Kulturarteko Plaza Feminista**  
Hernani. Irailak 28, 19:00

**LABA**  
Iruñea. Urriak 5, 19:00

AUTO BIDAIAK BERTSO SAIOETARA BIDEAN.  
ZORIZKO ALIANTZAK ETA ADISKIDETASUNAK.  
OHOLTZAPEKOAK. OHOLTZA GAINEKOAK.  
BOTERE HARTZEAK, GARAGARDOAK ETA KONPRESAK.  
EMAKUMEOK JENDAURRERA JAUZI EGITEAN  
BIZI DITUGUN POZAK, ALEGIA.

**Komiki berria**

140 orrialde koloretan

Prezioa **24 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

**azoka.argia.eus**

(+34) **943 37 15 45**